



IÑIGO URKULLU

EAJko lehendakaria

«Alderdi denei
irekita gaude
gobernagarritasuna
bermatzeko»

- **Gerrako eraikinak** Ardurarik gabe eraisten den ondare arkitektonikoa
- **Axun Lasa**, estatu indarkeriaren biktima «Pena ematen dit Euskal Herrian egin dugun bideak»
- **Javier López Sánchez** «Mexikoko indigenek beren hizkuntzan mintzo direla aitortzea lortu dugu»
- **Altzoko Haundia** Erraldoi bezain onbera zela agertuko du opera batek, txotxongiloen bidez

www.beranduegi.tv

www.argia.com



67.

saio honetan...

(urriaren 9tik ikusgai dago)



► Beranduegi datorren albistegia

Gorka Bereziartua eta Unai Brea kazetariak, astero bezala, ironiaz betetako begiratu zorrotza egin diote azken egunetako aktualitateari. Hauteskunde giroak izan du protagonismo handiena saio honetan.



► Ziztadak

Desobedientzia zibila edota indarkeria-eza aktiboaren inguruko eztabaida sustatzeko asmoz etorri da Ziztadak dokumentala. Marthin Luther King eskubide zibilen aldeko aktibistaren hitzetan du jatorria, Bidea Helburu elkarteak egindako film honen izenak. Lanak gure herrian oso ezagunak izan diren gertakari, borroka eta pentsamolde sorta anitzak bildu ditu.



► Oskar Alegria

Man Ray artista dadaistak Emak Bakia 16 minutuko zinipoema egin zuen 1926an, lan esperimental eta berritzailea. Miarritze inguruko etxe batean errodatu zuen, diotenez Emak Bakia izeneko etxe batean. Arrasto horren atzetik abiatu da Oskar Alegria iruindarra.



#hautesporra

Hauteskundetako porra antolatu dugu twitter bidez. Eusko Legebiltzarraren osaketa berria asmatu beharko duzue. Adibidez UPyD 39, PP 26, Equo 5, EHBildu 4 eta EAJ 1. #hautesporra etiketa erabiltzea besterik ez duzue parte hartzeko. Ahhh! eta @beranduegi-ren jarraitzaile izan, noski. Urriaren 23an jakinaraziko dugu irabazlea zein den.

Saria: bi laguntzako otordua A Fuego Negro Donostiako jatetxe berezian.



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2012ko urriaren 14a, 2.340. zenbakia

DEABRUAREN ABOKATUA

MARIBI UGARTEBURU: «Politika diogunean herrigintza diogu». SUSTRAI COLINA / 4

ASTEKO GAIA

GERRAKO ONDARE ARKITEKTONIKOA Oroimena birrintzen. AITOR AZURKI, EZTIZEN MIRANDA / 5

PERTSONAIA

AXUN LASA: «Min handia egin diogu elkarri Euskal Herrian». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIAK

CYBERMANAGER PROIEKTUA Interneten seguru ibiltzeko. OLAIA JUARISTI / 15

IRITZIAREN LEIHOA

LETONIA, EREDU OKERRA ASIER BLAS MENDOZA / 18

HONELA DANTZATU ZEN ZARATRUSTA OIER ARAOLAZA / 20

LTD-AREN ENGAINUA UNAI BREA / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Dramaturgia. IXIAR ROZAS / 20

BERTSO BERRIAK Argi baskoei jarriak. JEXUX MARI IRAZU / 21

ZIRTA Bi zutabe/Dos columnas. ANGEL ERRO / 22

ERDIKO KAIERA

ALTZOKO HANDIA, TXIKIEN OPERA Erraldoiaren gizatasuna aldarrikatuko dute txotxongiloek. IRATXE ESNAOLA / 23

UNAI IGARTUA URANGA: «Lancrerentzat deabruaren hizkuntza zen euskara». AMAIA ZABALA TOLOSA / 27

IRITZIA Iragana beste aberri bat da. PATXI LARRION / 30

LIBURUAK SAIOA RUIZ GONZALEZ / 32

DISKOAK IKER BARANDIARAN / 33

EZPALAK GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 34

ALEA Ez dezagun iparra gal. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 35

OSASUNA JABIER AGIRRE / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 38

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 39

TERMOMETROA

IÑIGO URKULLU: «Federalismoa autonomiaren parekoa bada, ez dut onartzen». MIKEL ASURMENDI / 40

JAVIER LÓPEZ SÁNCHEZ: «Mexikok hizkuntza dibertsitatea duela onartzen hasi dira mexikarrak». MIEL A. ELUSTONDO / 44

AIREAREN KUTSADURA Dosi txikitan pozoitzen ari da Hego Euskal Herria. GORKA BEREZIARTUA / 48

BERO-BEROAN JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 49

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

MARIBI UGARTEBURU

Mutututakoen bozeramailea.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkia: Judit Fernandez



«Politika diogunean herrigintza diogu»

Kazetaritzatik politikara pasatzea lubakiz aldatzea ez bada...

Lubakiz aldatzea? Lehen galderak egiten nituenean eta orain erantzuten ditudanean, berdina naiz. Ez dut pentsamoldez eta printzipioz aldatu.

Pentsamoldez eta printzipioz aldatzen ez duenak bide motza du politikan.

Politikak historiako une jakin batean jendarte baten korapilo nagusiei erantzun adostu eta bidezkoak bilatzeko erreminta izan behar luke, ez inposizioz, ukazioz eta fribolitatez mozorrotuta saltzen diguten teatroa.

Aizu, errespetua Arte Eszenikoentzat.

Kasta politiko dominanteak beldurra dio zinezko debetari, eta popa-bistan ez geratzeko, irain eta akusazioetara desbideratzen du fokua. Noiztik ez dugu benetako eztabaida politiko bat ikusi telebistan? Ahaztuta daukat... Ez dakit inoiz ikusi dugun ere.

Orduan, hauteskunde gauetan ez duzue denek irabazten?

Fribolitatearen beste isla bat. Emaizak emaitzak dira, zenbakiek ez dute gezurrik esaten, eta bakoitzak bere irakurketak positibizatzen dituen arren, noiz ulertuko dute batzuek jendea ez dela tontoa?

Hauteskunde bezperan ezinezkoak ziren paktuak biharamunean zergatik diren posible azaltzen didazunean, agian?

Politika espektakularizatu honetan mezu

faltsuak direlako nagusi. Politikari faltsuke-riaren trajea erantzeko, lau urtez behin bozkatzeaz haragoko herritarren parte-hartze eta enpoderamendu bideak eraiki behar ditugu.

Herritarren enpoderamendua eta parte-hartzea ez da astebururo manifa bat izango, ala?

Guk politika diogunean herrigintza diogu: bere burua eraikitzen duen herri bat, herritar-rrak aktore diren herri bat. Erantzunerako, haserrerako eta aldarrikapenerako arrazoiak ez dira inoiz faltako. Guri dagokigu mobilizatzeko modu egokiak asmatzea.

Hain da eskizofrenikoa atzo arte ilegalak izan eta bihar Ertzaintza gobernatzeko zorian ego- tea!

Errespetua sortzen digu baina beldurrik ez. Ilegalizazio aroa erabat gaitzitzen arnasa hartuko dugu, baina horrek ez du erosokerian jausiko garelako esan nahi. Desiratzen gaude euskal herritarrengan intzidentzia zuzena duten gaietan eragin eta aldaketa bul- tzatzeko.

Bai, bai, baina beste hark zioenez, EAJrik gabe ez dago independentziarik eta EAJrekin ere ez!

Siglak eta partiduak lehenesten dituen politi- ka moldeak barik herrigintzan oinarritutako politikan jardun behar dugu. Momentuz garbi dagoen bakarra gehiengo sozialik gabe indepen- dentziarik ez dagoela da. Gehien- goa izan behar dugu. ■



Oroimena birrintzen

Munduko toki askotan gerrako ondare arkitektonikoa modu berezian zaindu izan dute erakunde eta gobernuek, berdin memoria historikoa berreskuratzeko, nola turismoa erakartzeko. Adibideak ugari dira: Krakoviako Auschwitz-en eraikitako hilketa-zelaia, Eskoziako Orkadetan presoek eraikitako gerrarako hesiak... Eta gurean? Salbuespen gutxi batzuk kenduta –esaterako, Intxortan auzolanean berrikitan berreskuratu dituzten lubakiak– hiltzorian da ondare hori. Toki sinbolikoak birrindu dira eskrupulorik gabe eta eraikinak ezezagutzara kondemnatu dituzte utzikieriaz. Eztizen Miranda eta Aitor Azurki kazetariak adibide bana ekarri dute orriotara.

EZTIZEN MIRANDA



Garellanoko kuartela eraikin estrategikoa izan zen 1936ko Gerra Zibilean euskal lurraldeen defentsarako. 2012ko maiatzean hasi ziren birrintzen eta uztailean amaitu zuten lana hondeamaginek; 1.052 etxebizitza egingo dituzte bertan.

Gaintxurizketako gotorlerroa nekazal biltegi

Erresistentzia errepublikarraren beldur, 1939 eta 1940 artean hainbat kilometroko Vallespin gotorlerroa eraiki zuen Francok Gipuzkoako mugan. Egun, besteak beste, patatak, sandiak, usook eta untxiak gordetzeko biltegi gisa erabiltzen dituzte bunkerrok Hondarribia eta Irungo baserritarrek.

Testua eta argazkiak:

| AITOR AZURKI |

GAINTXURIZKETAKO N-1 ERREPIDETIK igarotzen den makina bat gidarik ez du sekula imajinatu ingurua porlanezko gotorlekuz eta lurrazpiko pasabidez josita dagoenik. Lehenengo albisteak 2006ko uztailan azaleratu ziren, errepidea zabaltzeko lanetan langileek bunker hauek gutxi batzuk topatu baitzituzten. Balio historikorik ez zutela argudiatuz, traba egiten zuen oro eraitsi egin zuten orduan.

Hala eta guztiz ere, porlanezko eraikinok historia luzea dutela ezin uka. 1939an eta 1940an, Iparraldean erbesteratutako errepublikarren balizko erasoei eutsi asmoz, frankistek zenbait kilometroko defentsa-lerroa eraiki zuten Pirinioak gotortzeko. Vallespin teniente koronelaren gidaritzapean, Gipuzkoa eta Nafarroako lurrazpia tunelez, metrailadore-habiaz, aginte-postuz eta abarrez josi zuten, horretarako langile batailoietako errepublikar presoak erabiliz. Hondarribia eta Irungo Gaintxurizketa nahiz Arkaleko ingurumarietako auzotarrek “betidanik” ezagutu dute gudarako inoiz erabili ez zen Vallespin gotorlerroa; lasai asko bizi izan dira hamarkada luzez bunkerren artean. Hori gutxi balitz, beste erabilera batzuk eman dizkiete gerla-erakin horiei.

Jaitzubia auzoko Eskamendi sendiak, adibidez, oso gertutik bizi izan du bunkerren historia. Txikitan pasabideetan barna jolasean ibiltzen ziren, bat edo bat usategi gisa erabili izan dute ingurukoek, eta baratzerako ura ere bertatik ateratzen zutela dio Salvador Eskamendik. “Bunkerak eraikitzen jende asko hil zela komentatzen zuten, dirudienez, hau dena eskuz egin baitzuten, mandoekin gainera, sei edo zazpi urtetan!”, azaldu du. Garai bateko kontrabandoaren lekuko ere izan dira metrailadore-

habiok: “Barruan izututako portugaldarrak ikusi izan ditut. Noski, bagenekien mugalarrien zain zeudela, alde batetik bestera igarotzeko”.

Auzo bereko Aginagasaki baserriko Manuel Zubeldiak 77 urte ditu eta oso ongi ezagutzen ditu inguruko guda-eraikinen kokalekuak, gaztetan barruan ibilia baita. 1943an presoak ez, militarrek ikusten zituela lanean ziurtatu digu: “Ingeniariak gainera! Kamioiak etortzen ziren hona, kaki koloreko soldaduek saskietan porlana bota eta eskutik eskura pasatzen zituzten otarrak: “*¡Eh, cheval! ¡Ven aquí!*”, esaten ziguten batzuetan”. Baserritik gertu, mendian gora, militarren barrakoiak zeuden: “Brigadak hornidura gordetzen zuen: olio, arroza... Eta gau batean soldaduek janaria lapurtu, hona etorri eta saldu egin ziguten. Esne bila ere etortzen ziren, eta trukean ogia ekarri”, esplikatu du Zubeldiak.

Enpresetako aldagela

Idorpe Teilatuak etxebizitzaren estalduren negozioak metrailadore-habia txikia du bere Hondarribiko instalazioetan. Hau baino lehenago beste enpresa bat zegoen bertan, eta gotorlekua aldagela gisa erabiltzen zutela azaldu dute Iñaki Indakoetxea eta Joxe Telletxea langileek. Orain bi urte etorri zen Idorpe Teilatuak leku honetara eta goitik behera garbitu dute: “Atontzen aritu gara, barruan dena urez gainezka baitzegoen, lokatzez eta amaraunez beteta”, dio Indakoetxek. “Metro bateko sastrakak moztu eta eskailerak ere berritu ditugu”, gaineratu du bere kideak harro. Hala ere, argitu dute oraindik ez diotela erabilpen garbirik eman.

Enpresa honetatik oso hurbil bizi dira Las Doce Tribus taldeko kide batzuk. Lurra lantzen dute eta euren lursailetan zenbait bunker

Erakundeek gerra-gotorlekuok zaindu ez badituzte ere, modu praktikoan berrerabiltzen jakin du egungo jendarteak



Goian, Las Doce Tribus taldeko kidea barazkiak gordetzen dituzten Gaintxurizketako bunker barruan; eskuinean, Idorpe Teilatuak lantegiko bi lagun metrailadore-habia bat atzean dutela eta Istillaundi Zahar baserriko Manuel Urzelaieta untxi-kaiolaz beteriko bunkerra erakusten.



dituzte, baina horietatik bakarra atondu dute biltegi moduan. “Lehen iluna eta zikina zegoen. Beldurra ematen zuen hemendik pasatzeak! Horregatik, duela hilabete gutxi txukundu eta argia jarri genuen uzta gordetzeko, fresko egiten baitu. Temperatura beti berdina da, eta patatak, gainera, iluntasuna behar du. Oraintxe patatak eta sandiak ditugu”, azaldu digu Pedrok. Produktuok beraiek kontsumitzeko eta saltzeko ekoizten dituzte. Segurtasunerako burdinazko atea ipini diote sarreran hainbat metro luze eta zabal den bunker ederrari.

Lursail horiek baino apur bat goraxeago, Istillaundi-Zar baserria dago. Bertako Manuel Urzelaieta 68 urteko oiartzuarrak bi bunker erakutsi dizkigu. Bata, untxiz beteriko kaiolaz josirik. Sarrera oso zabala du porlanezko bunkerrak eta hesia ipini dute ate gisa. “Betidanik erabili dugu sagardo-botilak, untxi batzuk eta horrelako gauzak gordetzeko.

Honek ez du pasabiderik, baina bai pareta moduko hori”, azaldu digu, zapaltzen ari garen lurraren porlanezko oinarri zabala erakutsiz. Bigarren gotorlekua berrehun metro-ra dago, baina hutsik dute erabat. “Oiloak-eta sartzen dira bertan, baina hemen ez dugu trasterik”. Hori bai, zinez txukuna eta garbia dute bigarrena; seinale da zaintzen dutela.

Erakundeek gerra-gotorlekuok zaindu ez badituzte ere, iraganeko biztanleen terrore eta sufrimendua atzean utzi eta modu praktikoan bere egin eta berrerabiltzen jakin du egungo jendarteak. ■



A FUEGO NEGRO
-ALDE ZAHARRA- DONOSTIA

Nafarroa OINEZ 12

SAN FERMIN IKASTOLA AURRERA!

JAN

EBAN!

ENTZUN!

IRUS!

ETA

IRASI!

55.000 metro koadroko hobi komuna Garellanon

Bilbok, beste hainbat herrik bezala, 1936ko Gerraren historia gordetzen du kaleetan, baina boterearen eta hirigintzaren itsukeria herriaren beraren nortasuna lurperatzen ari da.

Testua eta argazkiak:

| EZTIZEN MIRANDA |

ESPAINIAKO II. ERREPUBLIKAREN azken hila-beteak ziren, 1936ko otsaila, eta Frente Popularrak irabazi zituen hauteskundeak. Artean, estatu-kolpea prestatzen ziharduten eskumako indar politiko tradizionalistak, monarkikoak eta faxistak.

Bilbon Afrikako altxamenduaren berri jakin bezain pronto, Jose Echevarria Novoa Bizkai-ko gobernadore zibila eta Bilboko Garellano erregimentuko burua, Joaquín Vidal Munarriz teniente koronela bildu ziren. Batailoiaren buruzagiak militarren leialtasunaz zalantzak zituen, ezaguna baitzuen isilpeko irratia zegoe-la kuartelean eta, berak agindu barik, gotorlekuak eraiki zituztela bertan; zertarako eta kolpearen kontra zibilek parte hartu zezaten eragozteko. Vidalek bazituen uste osoko soldaduak, eta horiek errepublikaren alde borrokatuko zirena seguru zen. Baina gizon haiekin nahikoa ez zuela izango uste zuen, eta horregatik eskatu zion laguntza Echevarria Novoari; gobernadoreak berehala eskaini zizkion Frente Popularraren baliabideak kuartela babesteko.

Basurtora bueltatu zenean, Garellanoko buruak zenbait ofizial ikusi zituen gainerako soldaduak kolpearen alde konbentzitu nahian, baina horretarako agindu ofizialik ez zen inoiz heldu kasernara. Alean ere, Iruñean zegoen García Escamez jeneralak gobernadore militarri estatu-kolpearekin bat egin zezala agintzeko deitu zionean, honek, Andres Fernandez Piñeruak, “¡Viva la República!” oihukatuz erantzun zion. Handik gutxira, Mola jeneralak berak deitu zuen Garellanoko erregimentura zuzenean estatu-kolpearen ordenantza emateko, ordurako, orde, kasernako telefonoak desbideratuta zituzten Gobernu Zibilerak eta horri esker, Echevarria Novoak errepublikaren aldeko erantzuna berretsi zuen, oraingo honetan Mola jeneralari berari.

Militar eta zibil, elkarrekin faxismoaren kontrako borrokan

Espainiako hainbat zonaldean estatu-kolpeak arrakasta izan zuen, Bilbon, bizkitartean, indar militarrek Kale Nagusia zeharkatu zuten uztailearen 19an demokraziaren alde: Guardia Zibila, Asaltoko Guardia, segurtasun guardiak, mugazainak, miñoiak eta Garellanoko batailoia izan ziren bertan.

Egun berean, kolpistak Bizkaian sartzea saihesteko, Garellanoko lehenengo zutabeak Legutiorako bidea hartu zuen, Vidal Teniente Koronela buru zuela. Garellanoko kuartelean hartutako erabakiek ahalbidetu zuten faxismoaren kontrako defentsa zibil eta militarra eratzea Euskal Herrian. Gerra hasita, zibil asko soldadu bihurtu ziren, izena Garellanon eman ondoren; gudaletxean biltzen ziren gudariak frontera joateko, eta horrela bihurtu ziren kaserna zahar-aren harresiak euskal historiaren lekuko.

Diktaduran zehar, gudari eta zibilen presondegi bihurtu ziren horma haiek, 1936an askatasunaren ikur izandakoak

Jaurlaritzaren eraketa

Egoera horretan baino ez zen posible izan Euskal Autonomia Estatutua sortzea, 1936ko urrian. Orduan, Jose Antonio Agirre eta Lekube izendatu zuten Jaurlaritzako lehen lehendakari eta egungo Carlton Hotelaren balkoitik egin zuen deia “Euzkadiren askatasunaren alde”.

Jaurlaritzarekin batera Euzko Gudarostea sortu zuten eta Vidalek eta Piñeruak ardura handiko karguak izan zituzten euskal armadan. Horiekin batera, Modesto Aranbarri Bilboko Udaltzaingoko arduraduna izendatu zuten euskal ejertzitoaren operazio buru.

Urkulu mendiko borrokan ostean, 1937ko ekainaren 15ean, frankistek Bilbo bonbardatu zuten, eta hildako eta zauritu ugari izan zen, baina kaserna zutik mantendu zen. Egun batzuk geroago, Hego Euskal Herri osoa frankisten esku zegoen. Uztailean, Garellanoko erregimentuak eta Euzko Gudarosteko



1937ko ekaineko bonbek lortu ez zutena lortu dute orain hondeamakinek. Garellanoko eraikinen hondarrak etxebizitza berrien zimendu gisa erabiliko dituzte.

beste hainbat gudarik mendebaldera jo zuten borrokan jarraitzeko, urrian Santander kolpisten menpe geratu arte. Hortik aurrera ez dago Garellanokoen berri: batzuek beste batailoietan jarraitu zuten; zenbait etxera joan ziren; kolpisten bandoan borrokatu ziren hainbat hortik aurrera.

Basurtoko kasernari dagokionez, frankisten gotorleku bihurtu zen, Garellanoko erregimentu berriaren kuartela. Hori horrela, diktaduran zehar, gudari eta zibilen presondegi bihurtu ziren horma haiek, 1936an askatasunaren ikur izandakoak.

Militarrek 1983an egin zuten alde Basurtutik, eta orduan, Bilboko Udalak Segurtasun Zerbitzuak eraman zituen kasernara; udaltzainak Garellanora itzuli ziren beraz.

Ahantzura: hirigintza-irabazien kondena

Aurten, kolpistak Bilbon sartu zirela 75 urte bete direnean, hirigintzaren hazkundeak bere egin du historiaren hondamena. Izan ere, 1937ko ekaineko bonbek lortu ez zutena lortu



dute eraiste makinek 2012an, Garellanoko kuartela desagerrarazitea. Egunkariak diote eraiste ekologikoa izan dela, leialtasunaren aztarnak berrerabiliko dituztelako 1.050 etxebizitza berrien zimendu bihurtzeko. Horrenbestez, Euskal Herriaren historia eta nortasuna ehortziko dute hirigintza-irabazien zamarekin ireki ezingo dugun beste hobi komun batean.

Telesforo Aranzadik esan zuen bezala “begiek ezagutzen dutena baino ez dute ikusten”. Basurtuko Garellanon hirigintza Master Plan baterako lurzoru gozoa ikusi zuten zenbait begik; hala bada, hezi ditzagun begiak bestelako ikurrak ikusezin bihur ez daitezten. Carlton Hotelak garai bateko Jaur-laritzaren sekretuak gordetzen ditu oraindik Bilboko Biribil Plazan; Errepublikako armariak isilik darrai *Espainiako Bankuaren* aurreko horman; bonben babeslekuen arnas-zuloak irekita daude zenbait etxebizitzaren sotoetan; eta beste asko ere bai, ikusi nahi duten begien zain. ■



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

«Min handia egin diogu elkarri Euskal Herrian»

Joxean Lasaren arreba baino lehen, baserriko alaba zen Axun, iaz, Urepelen, Xalbadorren etxolan gora eta behera zapata takoi-handiak lokatzetan sartuta zebilena.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Axun Lasa, "Lasa eta Zabala", Joxean Lasaren arreba.

Zama handia eraman dut neure gain, leku askotara eraman ere! "Axun Lasa, Joxean Lasaren arreba" esan izan dute, baina garbi utzi nahi dut, ni Axun naiz, Axun Lasa, baina naiz Jexuxaren alaba, Joxe Marirena, halakoren laguna... eta Joxearen arreba ere bai, ohore handiz gainera. Gure anaiaren heriotza hor dago, baina Joxearen arreba baino gehiago ere banaiz, dudarik gabe.

lazko azaroaren azkenean, iritzi-artikulu irakurri genizun *Berria* egunkarian, anaiaren heriotza, zeuk jasotako torturak... Latza.

Sekulako lasaitua eman zidan artikulu hark. Egundoko korapiloa bota nuen bertan. Ez nuen idatzi plazaratzeko asmotan, barrua husteko baizik.

Nola heldu zen egunkariraino?

ETak behin betiko su-etena eman aurretik hasi zen, Donostian Bake Konferentzia egin zen garaian. Han ari nintzen ni lanean, Alegiatik Urnietara, autoan. "ETaren biktimak... Bake Konferentzia... ETaren biktimak... ETaren biktimak... ETaren biktimak... Ez dago eskubiderik...". Gobernuak jendea eta kazetariak ari ziren han, eta "ETaren biktimak" besterik ez zuten esaten. Behin eta berriz ari ziren horretan. Halako batean, dendara iritsi nintzen eta esan zidaten: "Zer duzu?", eta "ezer ez!". Joan nintzen ordenagailura eta idazten hasi nintzen, etorri ahala bota nituen barruan neuzkan guztiak. Idatzi nuenean, ez nekien ezabatu ala zer egin... Horretan, badut lagun handi bat, katalana, kazetaria, esan izan didana: "Gaizki sentitzen zarenean, idatzi, atera barruan daukazuna,

bota min hori, hustu!", eta bilatu nuen helbidea, "Myrian", eta bidali egin nion. Esan zidan: "Begira, Axun, guk hemen Katalunian, eta Madrilan, horrelako gauzak behar ditugu".

Familiak izan zuen zure testuaren berri argitaratu aurretik?

Euskaraz jarri zidan ahizpak ez ezik, beste senide bati ere erakutsi nion. Baina ordurako ez zitzaidan inporta. Oso jenio txarrean bizitu nituen egun haiek, min handia egin zidaten behin eta berriz entzuten nituenek. "ETaren biktimak" besterik ez nuen aditzen. Bizitzan badira gauza batzuk egin behar direnak, eta testu hura idatzi eta argitaratzea izan da horietako bat. Sekretu asko kontatu nituen han, inork ez zekizkien gauzak, ez nire semeek, ez gurasoek, ez inork.

Beste emakumezko baten liburua irakurri nuen duela urteak: *Esan gabe neukana*, Agurtzane Juanenarena. Handik hona hainbat lekukotasun ageri izan dira egunkarietan. Zurea azkenetakoa. Gorriak ikustea tokatu zaigu... "zait", esan beharko nuke, nitaz hitz egitea dagokit-eta. Hainbeste gauza, hainbeste, hainbeste, eta

NORTASUN AGIRIA

Axun Lasa Arostegi (Isastegi baserria, Tolosa, 1956). Dendaria. Lasa eta Zabala kasuak toles asko ditu, pertsona asko dira tartean, era batera edo bestera. Iaz, toles horietako batzuk erakutsi zizkigun Axun Lasak egunkarira *Itomena* izeneko artikulu bidali zuenean. Anaia hil zioten emakumearen mina zen, batetik; torturatuaren aitortza publiko gordina, bestetik. Gorriak ikusi ditu, min handiak, baina min horren erraietaraino bidaia egin eta atera da, bizirik. Axun Lasa da, Joxean Lasa zenaren arreba baino puska gehiago.





hainbeste urtean! 1981ean alde egin zuen gure anaiak, 83an desagertu, 2000n egin zen Galindoren kontrako epaiketa... Urte asko dira, urte bakoitzak hamabi hilabete, hilabete bakoitzak hogeita hamar egun, egun bakoitzak ordu asko... Hainbeste momentu txar pasatu ditugu! Azkenean, gaixotzen ari nintzela konturatu nintzen. Gaixotzen: bizkarrezurreko minez, ezin ibiliz... Zerbait behar nuela konturatu nintzen, eta horretan, jende ona topatu nuen bidean, asko lagundu zidana. “Kutxa bat duzu, itxita, karez eta harriz guztiz itxita... Ireki beharra daukazu hori!”. Eta lan egin behar izan nuen neure onera etortzeko, oso modu egoistan, ni neu hobeto sentitzeko.

Zama handia eraman duzula esan diguzu arestian. Familian nola eraman dute zure senideek Joxeanen –eta Joxiren– azkena?

Mina izan da, min handia. Aitak bizitu zuen era batera, amak beste batera, senideok ere –bederatzi ginen, zortzi gara orain– nork bere erara... “Badakizu hilda egongo dela, imajinatzekoa da”, esango zidan batek, eta nik erantzun: “Imajinatu behar baldin badut, nik bizi-rik imajinatuko dut Joxean”. Berdin gertatu zitzaidan Tolosan bertan. 1987an, kontzentrazio bat, eta ETAko hildakoen argazkiak, eta tartean Lasa eta Zabala. Aurreneko aldiz bilera batera joan nintzen: “Hilda dago? Argitzera nator, jakin nahi dut”. Eta benetako lagunekin berdin, eztabaida: “Badakizu hilda dagoela”, “nola badakidala? Zer dakit nik?”. Eta kontzentrazioan biltzen zen jendeari ere esan behar izan nion, argazki haiek kentzeko hilda-

koen zerrendatik, eta jartzeko desagertuen artean: “Hemendik atzera neu joango naiz bilera horietara, neuk eutsiko diot Joxeanen argazkiari, baina ez hildako bezala!”. Eta horrela izan zen, baina lagunak ere konturatu ziren zertaz ari nintzen eta errespetatu ez ezik lagundu ere asko lagundu ninduten. Familian nork bere erara eraman du zama hau.

1995ean agertu ziren Joxiren eta Joxeanen gorpuak.

Oso gauza gogorrak pasatu ziren orduan ere, oso gogorrak. Kanposantukoa izugarritzko egurra izan zen. Pentsatu familiarentzat zer izan zen hura! Ez dago sinesterik ere. Familian gehienok bagenuen kezka: “Ez daude. Hilda egongo dira. Bilatu egin behar ditugu...”. Azkenean, azaldu ziren. Jakin genuen. Eta otsailetik ekainera haien etorrera prestatu genuen. Gure ilusioa, hilda zetoze jakinda ere! “Joxeantonio dator, hilda, baina badator”. Kutxan zetorren, jakina, hezur batzuk besterik ez. Alacantera joan eta gorpua ikusi ahal izan zuten gure aitak, gure amak eta bi senidek. Gu familia handia ginen, baina ez ziguten gainerakoei sartzen utzi. Ez genuen eskubiderik. Amorrazioa! Etxera etorrera oso-oso tristea eta gogorra izan zen. Lurperatuta egon ziren mendi lehor, trakets, zeken eta itsusi hura ezin burutik kendu. Hala ere, egun batzuetara konturatu nintzen “hor zeudela”. Ilusio handienarekin prestatu genuen haien itzulera, ezer berezirik egin gabe ere. “Halako musika jarriko dugu, kalean pasae-ran halakoa...”. Udala laguntzeko prest

genuen. Familia dena antolatzen, gure baserri atarian. Gero, gertatu zena ikusi... Nola bizi zuen hura bakoitzak? Ahal zuen bezala!

Joxean eta Joxiren berririk ez zen garaian, ETak atentatua egiten zuenean, zer zegoen zure barruan? Alegia, Gabriel Arestiren harako *Joxepa Mendizabal Zaldibian* poema dut beti gogoan: *Etarren amek / asko sufritzen dute, / semeak hiltzen dizkietenean / eta batez ere / semeek hiltzen dutenean.*

Nik orain aitor nezake. Orduan ez. Orduan hainbesteko pena eta tristura zegoen pilatuta, ezin! Gorrotoa?... Bai, ziurrenik ere. Laster hasi nintzen horri buelta ematen. Bateko eta besteko deialdiak egiten ziren, baina ez nuen joan nahi izaten. Kalbarioa pasatu nuen orduan ere. Atentatua igual eta "besterik ez ditek merezi!" esaten zutenei ez nien ezer esaten, ezin esan, haixek defendatzen ninduten-eta! "Jaialdia dago... Ez noa, hantxe izango dira halako eta halako, eta ez dut haiekin egon nahi...". Min handia ematen zidan. Momentu gogorak bizitu izan ditut.

Egunkarira bidalitako *Itomena* idatzian, bi min ageri dira: Joxeanean heriotzak ekarritakoa batetik, eta zeuri egindako torturak bestetik.

Min handia nuen... Nahiko lan nik, eta nahi-ko lan torturatzaileek. Halako gorrotoa dute! Gaixoak dira!

Jorge del Cura Torturaren Prebentziorako Espainiako Koordinakundeko kideak esan zigun aurten bertan ARGIAN, torturatzaileak horretarako erakutsi dituztela. Tortura-saio baten ondoren, etxera joan, telebista aurrean jarri, haurrak magalean hartu eta, besterik gabe, futbol partida ikusteko gauza direla.

Horretarako daude prestatuta, bai, eta ondo prestatuta, gero! Nik ez dut horiekin ezer jakin nahi, ezer ez. Barkatu... Ezer txarrik opa... Ezer ez. Oraindik gogoan daukat Madrilekoa. Jaso nituen torturak, eta tortura-

Inpotentzia

"Uribetxebarria, azkeneko kasua. Oso minduta nago. Zer ari dira politikariak? 'Justiziak agintzen duena beteko dugu, baina ez gaude ados'. Uribetxebarria kondenatu zuten, bai, Ortega Lara bostehun egunez bahituta eduki zuten, gauza larria da, baina zuri, politikari zaren horri, hainbeste urte preso egondakoa, gaixotasun larria, sendaezina duena, kalera irteteak kezkatzen zaitu? Zuk, politikari horrek, obligazioa daukazu jakiteko non dagoen Galindo, non Elorriaga eta beste pila. Eta irratia piztu, eta ezin nuen sinetsi politikariak berriro ere arinkeriak esaten aritu zitezkeenik. Inpotentzia eta mina sentitu nituen".

tzaileak. Bi aurpegi dauzkat gogoan, haien adina, arropa... Ez dut haien berririk izan nahi, ez kartzelan dauden, barruan dauden... Ez zait inporta! Inori ez diezaiotela minik egin, horixe besterik ez dut nahi nik.

Ez zaizu inporta Galindo?

Ilusiorik handiena zerak egingo lidake, Galindok aitortzea haiek ere okerrak egin dituztela, min handia sortu dutela, hori izango litzateke nire ilusiorik handiena. Gainerakoan, ni ez noa Galindoren kontra, beldur handia diodalako, beharbada. Hala ere, barkatzen zailena kanposantuko hura da. Arantza hori barru-barruan sartuta daukat, eta ezin dut atera.

Denoi fortunatu zaigu, gutxi-asko, kanposantura bidea hartu beharra. Zuen kasuan, Joxeani lur eman behar eta ertzainen eraso hura, hilerriko oldarraldia gogora ekarri eta "hau ez duk mundu honetakoa, ez duk benetan gertatzen ari!" esango nukeela uste dut.

Heriotza gogorra da, heriotza hori probokatua izan baldin bada, askoz gogorragoa, baina lur ematea baldin badaukazu, pena hori bizitzea posible baldin baduzu, luxua da. Esanda nago ETaren biktimaren senide bati. Senarra hil zion ETak. Hizketan ari ginen, gozo. "Esan, esan Axun, esan nahi zenuena", "ez, min egingo dizu-eta", "esatea nahi dut, Axun". Eta esan nion: "Biok jasan dugu biolentzia, baina zurea luxua da", "Axun!", "barkatu, ez nizun esan behar, ez nizun minik egin nahi. Gogorra da inori senidea kentzea, hamabi urtean haren berririk ez izatea, eta etorritakoan, antsia handi horrekin zain, 'hemen dago, hemen dago!', eta gero, kanposantuan egin zutena egitea. Hori ezin da. Horregatik da luxua zurea". Gogoan daukat Joxeanean aitak, gure aitak, 83an esan zuena, desagertu zirela jakin zuenean. Abokatuarenetik etorri eta esan nion: "Ez dago haien berririk, ez Joxiren ez gure Joxeantonioren berririk. Zerbait arraro eta latza ikusten dute". Mahaian jarrita zegoen gure aita, jo zuen ber-



HOTELA IRIARTE JAUREGIA

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com



AZKEN HITZA

Kaliforniara

“Juan Mari Jauregi hil zutenean, bi semeekin batera nentorren oporretatik, eta entzun nuen: ‘Juan Mari Jauregi... Beotibar... Tolosa...’. Hura larria! ‘Ez daukat gogorik etxera joateko. Banoa Kaliforniara bizitzera! Ezin dut, ezin dut...’. Nahaste handia nuen. Baina, esan dizut, indarririk ere ez nuen izan esateko: ‘Ez nago ados!’. Pixkana etorri da hori, geroago, poliki”.

tan kolpea ukabilarekin eta: “Hori entzutea baino, tiroz josita bide bazterrean dagoela entzutea nahiago nuen!”. Altxatu zen, joan zen, eta pixka batean ez zen itzuli. Oso gogorra da esan zuena, baina bazekien zer esaten zuen...

Sukalde-lana egin omen duzue biktimek, isilpeko lana.

Irlandara joan ginen, Glean Cri-ra, han ez zegoen telebistarik, egunkaririk, tabernarik... Ezer ez. Etxe ederra, besterik ez. Pixka bat ibiltzera irten eta, kanpoan, hotza eta izotza. Eta kito. Mutur sartzerik ez. Nik neuk izan dudana esperientziarik aberasgarriena izan da, gauzarik onena. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulegoko zuzendaritzak antolatutako egin dugu lan: Carlos Beristain, Galo Bilbao eta Julian Ibañez de Opakua. Bilera haiek ez zuten helburu jakin bat, biltzea besterik, eta ikustea ea elkarbizitza posible ote zen. Eta jendea deialdiari baiezkoa ematen joan ginen neurrian aurrera atera zen. Lehenengo bi urteetan bosna biktima elkartu ginen, baina laster konturatu ginen hura zabaldu egin behar zela eta horrela egin zen. Biktima asko egon da harrezkero, eta biktima asko dago oraindik gaur egun, presoen senideak, besteak beste. Kalbarioa pasatzen ari dira horiek.

Biktimak bildu zineten Glean Crin, nork bere mina zuela.

Eta horixe egin genuen, nork bere mina azaldu, eta bata bestearen mina, begietara begiratu entzun eta errespetatu. Lasai hitz egiten saiatzen ginen, baina beti ez zen posible. Momentu latzak bizitu genituen tartean, batzuek zein besteek, baina esan dezaket momentu horiek gainditu ondoren sortzen den... konplizitatea?... izugarria dela. Horietako bat, besarkada jakin bat... Beti, beti izango dut hura gogoan. Eta oso goxo gainera.

Biktimak ikastetxean

Nola hasiko gara, bada, umeei hau eta hura kontatzen? Ez diet umeei inoiz sentitua dudana gorrotoa eta mina transmititu nahi. Unibertsitatera joan behar baldin bada, beharbada, baina hamabi urteko neska-mutilei kontatzera? Ez. Helduon artean lasai hitz egiteko gauza ez garen bitartean, ez. Jaurlaritzako Andoni Unzaluk esan zuena eta: “Bai, eta ona izango litzateke zulo bat erakustea, metro bat luze, metro bat zabal”. Esan nion: “Ez pentsa nik zure zuloarekin batera tortura-gela bat jartzea eskatuko dudarik! Jartzen baduzue, jarri, baina ez nik eskatuta!”

Emozioak gainezka dira. Zer dio arrazoiak?

Pena ematen dit Euskal Herrian egin dugun bideak, min handia egin diogu elkarki. Honek balio izan duela entzun, eta pena hartzen dut. Ez du balio. Gizakiak ezin du gizakia hil edo torturatu edo... Arrazoirik ez dago horretarako. Ikasi egin behar dugu, txikitandik, oso diferenteak izan gaitezkeela, eta bata bestearen ondoan bizi behar dugula. Diferente garelako? Hitz egin dezagun, elkarrekin kontontzeko, espazioa banatzeko. Inork ez dauka arrazoi osoa, egia osorik inon ez dago.

Buka dezagun. Esadazu, nolakoa zen Joxean?

Oso-oso mutil goxoa. Beti irribarrez. Bertsolari tipoa zuen. Etorria, erantzuna bat-batean beti. Eta umila. Ez zen batere erretxina... Behin ikusi nuen erretxinduta, Ibarrako Josetxo Jauregi hil zutenean, Izaskun aldean, Guardia Zibilak hil zuen, kontrolean nonbait. Orduan bai, oso erre ikusi nuen, aztoratuta. 16 bat urte izango zituen. Goxoa zen Joxean...

Azken oroitzapena?

Iparraldean, adarra joka guk: “Badakigu neskatan ibiltzen zarela”, “nik ezin dut andregairik izan”, “andregaia ez diozue esango oraindik, baina bada hor neskaren bat”, guk. Eta Joxeanek: “Ezetz, ezin dudala andregairik izan. Nik badakit zer den nire bizitza: heriotza edo kartzela”. Oso gaztea zen, 20 urte besterik ez. Hirugarrena naiz bederatzi senideko familian, Joxean zazpigarrena zen. Neuk zaindu nituen etxeko ttikienak, ama txikia izan nintzen ni haientzat.

Eta Joxi?

Ezagutu genuen hura ere. Joxi eta Joxean, oso lagunak ziren eskolatik, umetatik. Olarrainen, eskolaren aurrean jarri zen bientzako monolitoa, oroitarria. Han dago dotore asko. Oso lagunak ziren, eta oso diferenteak. Gurea zen isila, irribarrea bai, baina isila. Joxi, berritsua, batarekin eta bestearekin arituko zen hura, alaia! ■



Interneten seguru ibiltzeko



NURIA OZKOIDIK UTZITAKO ARGAZKIA

Ikasle zaharragoek irakasten diete gaztetxoenei.

Aro digitalean, gazteek Internet modu egokian erabiltzeko ardura hartu du hezkuntzak. Helburu horrekin abiatu zuten duela bi urte Cybermanager proiektua aurtengo Nafarroa Oinez gidatuko duen Iruñeko San Fermin Ikastolan.

| OLAIA JUARISTI |

“ERREPIDEA GURUTZATZEN erakusten diegun bezala, Internet erabiltzen ere irakatsi behar diegu”. Argi dute Nuria Ozkoidi eta Kontxi Etxalar irakasleek, ekimenaren arduradunek. Azken finean, egungo belaunaldiek txikitatik erabiltzen dituzte mugikorra eta sarea, eta bizitzan bestelako arriskuak daudden moduan, Interneten ere badira. “Gai hauetan gu baino jantziago daude gazteak,

eta horregatik, ideia ona iruditu zitzaigun ikasle gazteak izatea txikienei erakutsiko dietenak”. Hala, helduagoak diren ikasleek beren esperientzia helarazten diete gaztetxoenei. Gainera, txikienek eredu moduan dituzte ikasle zaharragoak, irakasleak baino hurbilago sentitzen dituzte. Dakitena besteei irakatsiz, ikasleak beraiek modu aktiboa inplikatzeko dira proiektuan.

CYBERMANAGER PROIEKTUA



Nuria Ozkoidi (ezkerrean) eta Kontxi Etxalar arduratzen dira Cybermanager proiektuaz. Beraien esanetan, haurrek etxeko ordenagailua egongelan izatea komeni da, agerian.

Esaterako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek 5. mailako ikasleen gurasoei hitzaldia eman zieten eta oso esperientzia baikorra izan zen. Erronka da publiko aurrean hitz egitea, eta harro ateratzen dira halako saioetatik. Arduradunen esanetan, ikasleak irakaslearen rola hartzea garrantzitsua da, haiek ere ikus dezaten 15 urtekin gizarteari zer eskainia badutela.

Barakaldoko ikastetxe batean egiten zela ikusita, proiektua 2010ean abiatu zen San Ferminen eta azken bi urteetan 450 ikasle hartu dute parte. Martxan jarri aurretik, Pantallas Amigas ekimenak prestatu zituen ikastolako irakasleak. Teknologia berrien erabilera seguru eta osasuntsua bultzatzea eta haur eta nerabe digital arduratsuak hezteko da Pantallas Amigasen xedea.

Garrantzitsua da gurasoek seme-alabei askatasuna ematea ordenagailuan ari direnean, konfiantza izatea; baina zertan ari diren ikustea eta haiekin denbora partekatzea ere funtsezkoa da

Saio teorikoa eta praktikoa ditu Cybermanager-ek eta Internet egoki erabiltzeko aholkuak ematea da zeregin nagusia. Sare sozialetan erabilerari buruzko gomen-dioei garrantzi berezia ematen diete. Alde teorikoan, adibidez, irudiaren garrantziaz eta pribatasunaz aritzen dira. Argazki batek nolako informazioa atera daitekeen azaltzen zaie: zer den *cyberbulling*-a, zein datu eman daitezkeen eta zein ez, besteen baimenik gabe argazkiak igotzea ez dela egokia, argazki iraingarriak ezin direla sarean eskegi, argazki iraingarriei buruzko iruzkinak egitearen ondorioak... Gisa horretako zenbait ekintza delitu direla azaltzen zaie eta, irakasleen esanetan, batzuetan kosta egiten zaie ikasleei hori ulertzea, sarri uste baitute zigorrik ez duten ekintzak direla. Hala, argazkiak zintzilikatzerakoan ondo pentsatzeko eskatzen zaie, digitalak izanik manipulatuta daitezkeelako eta mingarriak izan.

Gazteei esaten diete jakitun izan behar dutela zein irudi eman nahi duten sarean. Egiatzko irudia erakutsi behar dutela azaltzen diete, eta ez irudi artifiziaia.

Webcama estali

Bizitzako gainerako arloetan bezala, Internetek hainbat arrisku dituela ikasten dute gaz-



KANBO
Urriaren 13an

AIEC gelan
17:00etan

Xumai Murua
Maddi Sarasua
Ramuntxo Christy
Battit Crouspeyre
Bixente Hirigarai
Gillen Hiribarren

kanporaketa B
argia



teek, baina burutsu jokatuz gero aurre egin ahal zaiela. “Ikasleek pentsatzen dute badakitelarenbaterainokoa den arriskua, baina maiz ez dakite”. Esaterako, Cybermanager saioetan ikasi dute webcama estaltzea komeni dela, programa batzuek ahalbidetzen dutelako beste pertsona baten ordenagailuko webcama aktibatu eta erabiltzailea ikustea. *Cyberbulling* edo Internet bidezko eraso eta jazarpen kasuak daudela ere ikasi dute. Norbaiti buruz Sarean gaizki esaka aritzea da ohikoenetakoa.

Ikasle gaztetxoek diotenez, Tuenti sare soziala erabiltzen dute gehienbat. Zenbait gauzetarako oso baliagarria zaie, batez ere gainerakoekin komunikatzeko, solastatzeko eta harremanak izateko. Eskolako apunteak ikaskideekin partekatzeko ere erabiltzen dute. Etxalar eta Ozkoidiren arabera, sare soziale-tan konturik ez duena oso kanpoan gera daiteke gaur egun, baina 14 urtera arte Messenger bat-bateko posta zerbitzua izatea nahikoa dela iritzi diote. Gainera, ordenagailua egongelan izatea komeni dela diote, etxeko leku publikoan denen agerian.

Ikasleek adierazi digutenez, orain badakite sare soziale-tan kontuz aritu behar dutela datu pribatuak ematerakoan; hala nola, ez dutela inoiz mugikorrek zenbakia eman behar. Argazkiak igo aurretik ere ondo pentsatu beharra daukatela ikasi dute eta orain ardura gehiagorekin erabakitzen dute zer igo eta zer ez Sarera. Arduragabe jokatuz gero, min handia eragin daiteke, baita norbere burua arriskuan jarri ere.

Irakasleek diotenez, kontzientziatzeko ere balio du proiektuak, besteak beste konturatzeko norbera iraintzea gustuko ez badugu, bestea iraintzea ere ez dela bidezkoa.

Nola jokatu behar dute gurasoek?

Ozkoidi eta Etxalarrek adierazi digutenez, hainbat gurasok ez dauka oso garbi non jarri behar dizkieten mugak seme-alabei, edo zein adin den egokiena sare soziale-tan aritzeko.

Azaltzen zaie zer den *cyberbulling*-a, zein datu eman daitezkeen eta zein ez, besteen baimenik gabe argazkiak igotzea ez dela egokia, argazki iraingarriak ezin direla sarean eskegi...

Irakasleek ez dute zalantzarik: haurra behar bezalako balioen arabera heziz gero, asko errazten da bidea. Garrantzitsua da gurasoek seme-alabei askatasuna ematea ordenagailuan ari direnean, dituzten nahiak errespetatzea eta konfiantza izatea; baina zertan ari diren ikustea, jabetzea eta haiekin denbora partekatzea ere funtsezkoa da. Ikasleek adierazi dute gurasoak fio direla eta ez direla gehiegi inplikatzeko. Batzuetan, gazteak ordenagailu aurrean ikusten dituztenean, kuriositateak jota galdezka hasten omen zaizkie: “Erakutsiko al didazu zertan zabiltzan?”.

Nuria Ozkoidiren ustez, gurasoek beraiek ere sare soziale-tan kontua izatea ona da, seme-alabek zer igotzen duten jakin nahi badute. Tarteka gazteari esan beharko diote bere profila ikusten uzteko. Eta ordu kopuruari dagokionez, Internetetikiko menpekotasuna kontrolatzea gurasoen gain dago gehienbat, mugak jarri behar dizkiete seme-alabei.

Internet, azken finean, gaur egun kontuan hartu beharreko faktore bat gehiago da. Ozkoidi eta Etxalarren aburuz, gazteak bizitzan martxa “egokia” badarama, martxa egokia eraman dezake teknologia berrien munduan ere. “Garrantzitsuena haur eta gaztearen garapen pertsonala da; hori ondo baldin badago, gainerakoa ondo joango da”. ■



iRUÑAZARRA
TaBERNA • JaTeIXea

Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.org · www.irunazarra.org

CuadraBus

www.cuadrabus.com

945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadrabus.com



INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Letonia, eredu okerra

EZ DIRA GUTXI bizi dugun krisi ekonomikoari aurre egiteko eredu baten bila dabil-tzanak: batzuek Islandian bilatu nahi dute irtenbidea, gabezia asko dituen kasu bat nabarmenki idealizatuz; beste batzuek, aldiz, bereziki murrizketak eta herztura ekonomikoa defendatzen dituztenek, Letonia goraipatu dute azkeneko hilabe-teetan. Bi urte dira “erreskatatutako” herrialde txiki honek langabezia-tasaren jaitsiera eta hazkunde ekonomiko esangu-ratsua erdietsi dituela barne debaluazio gogor baten ondoren, hau da, murrizke-ten eta soldata beherapenen politika muturrera eramanez.

Errealitatea, ordea, ez da arrosa kolo-rekoa. Bere hazkunde, litekeena da 2012an 2011ko %5,5 tasa errepikatzea, oraindik oso urrun dago erreku-peratzetik 2008-2010 hiru urtekoan pairatu zuen

%15era jaistea. Datu ofizialak ondo behatuta ikusiko dugu 2009ko urte amaieran, langabezia-tasak sabaia jo zue-nean, ia milioi bat zirela lan egiten zute-nak, baina orain kopurua 850.000 pertso-na ingurukoa baino ez da. Beraz, enplegua suntsitzen jarraitu dute.

Independentzia eskuratu zuenetik, Letoniako politika paradisu neoliberala bilakatu da. Ondorioz, bizitza-esperantza txikitu, pobrezia zabaldu eta emigrazioa ugaltu dira. Gauzak apenas aldatu dira ordutik, une hobeak (finantza burbuilari esker) edo txarragoak bizi arren, oro har, Letoniak urtero galdu du populazioa eta politika neoliberal berriak jarri ditu inda-rrean. Azken hauek ez dira gehiengoaren gustukoak, baina, herrialdea letoniar (2/3) eta eslaviar-letoniarren (1/3) artean bana-tuta dagoenez, hauteskundeak iristen diren bakoitzean letoniar etniakoek esku-mako alderdiei ematen diete botoa eta eslaviarrek ezkerrekoei, horregatik, Leto-nia da beti eskumako gobernua izan duen EBko herrialde bakarra. Borroka etniko-ak erabat desitxuratu du ezker-eskuin ardatza.

Oztopoak oztopo, letoniarrek estatu bat dute eta horri esker atzerrian dauden herritarrek beren nortasuna mantentzeko modua dute oraingoz. Nazionalismo banaleko elementu guztiek egiten dute beraien alde. Besteak beste, pasaportea, enbaxadak eta selekzio nazionalak dituzte identifikazio sentimentala bultzatzeko. Hori bai, sinboloez soilik ez da bizi nazio bat. Krisia hasi zenetik gazteen ia %40 atzerrira joan da lan egitera. Ez da harri-tzekoa, ingelesari esker, ia ama-hizkuntza bezain ongi hitz egiten dute, kanpora joan daitezke bizi-baldintza hobeak bilatzeko. Honen aurrean, demografoek ohartarazi dute letoniarrek lau belaunalditan desa-gertu daitezkeela. Izan ere, mundu globa-lizatu honetan nazio txikiek kontu handia-rekin ibili behar dute berain etorkizuna segurtatu nahi badute. Mugi-kortasun handiko garaiak dira hauek eta zure etxean bizi bal-dintza onak segurtatu ezean, ziplo hustu dakizuke. ■



Datu soil batek nahikoa izan beharko luke alarma guztiak pizteko: duela hogeita bi urte, independentzia aldarrikatu zuenean, ia 2,7 milioi herritar zituen Letoniak, egun ez da bi milioira iristen. Bestela adierazita, biztanleen %25a baino gehiago galdu du, gerra gogor eta lazgarria sufritu duen herrialde baten antzera.

%23ko atzerakada. Bidean, herrialdea injustuagoa bilakatzen ari da, aberats eta pobreen arteko distantziak handituta. Egoera hain da larria, bere etorkizuna zalantzan dagoela nazio bezala. Datu soil batek nahikoa izan beharko luke alarma guztiak pizteko: duela hogeita bi urte, independentzia aldarrikatu zuenean, ia 2,7 milioi herritar zituen Letoniak, egun ez da bi milioira iristen (azkeneko erroldan artifizialki iritsi arazi zuten). Bestela adierazita, biztanleen %25a baino gehi-go galdu du, gerra gogor eta lazgarria sufritu duen herrialde baten antzera. Horrek, eta ez beste ezerk, esplikatzen du zergatik azkeneko bi urteetan Letoniak lortu duen bere langabezia-tasa %20tik



URRIAREN 12AN
HISPANITATEAREN eguna
M A D R I L E N



URRIAREN 14AN
DESKONKISTA KOLEKTIBOA
D O N A P A L E U N



N A F A R T A R N A T U R A L A K !

Oier Araolaza

DANTZARIA ♦



ARGAZKI PRESS

Honela dantzatu zen Zaratrusta

CORDOBATIK, @bailarina97-k txiokatu du: “Niretzat droga da. Pozoia gorputzean sartuta daukat, eta orain egunero behar dut nire dosia”. Ez dut txorrotxiokatu (!), ez bainago ados. Dantza ez da gorputzean sartzen den zerbait, gorputzetik ateratzen dena baizik. Eta zer ateratzen da? Alaitasuna, tristura, zirikatze gogo... edozer, barruan daukazuna. Dantza.

Alicia Alonso: “Dantzaren bidez batasuna, bakea eta etorkizuna egiten dugu”. Tira, badakizue, karibetarrak oso beroak dira. Mathias Lillmans: “Dantzaren bidez larrutan egiten dut”. Halaaa, ahobero! Friedrich Nietzsche: “Dantzatu ez dugun egun bakoitza alperrik galdutako eguna da”. Nietzschek euskal hauteskundeak ezagutuko balitu, esaldia honela idatziko zukeen: “Dantzatu ez dugun eta hauteskunde kanpainan pasa dugun egun bakoitza alperrik galdutako eguna da”.

Eustatek dio, zuk, edo zure albo-koak, baina biotako batek ziur, baduzuela ezkutuko biziorik. Astero hartzen duzuela tarte bat paseatzeko edo kirola egiteko. Britainiarrak ere biziotsuak dira, baina gure aldean, Nietzsche zaleak. Futbolaren ondoren, dantza da britainiarrek gehien egiten duten jarduera fisikoa. Britainia Handian 40.000 dantzari eta dantza-irakasle ari da dantzaren munduan profesionalki. Herrialde oso bat dantzan. Horrela daude gu

baino hobeto, batasuna, bakea, etorkizuna eta sexua gainezka dituztela.

Horra nire plana. Lehendakari guztiak bahitu, eta eztabaida aspergarri bat egin beharrean, dantza reality batean sartuko ditugu. Hasteko, atarikoak. Elkarri eskua eman eta soka-dantza egingo dute. Denak soka berean. Ze polita. Gero bikoteka jarriko ditugu dantzan, erritmo eta sentsibiltate desberdinak koordinatzeko.

*“Horra nire plana.
Lehendakari guztiak bahitu, eta
eztabaida aspergarri
bat egin beharrean,
dantza reality batean
sartuko ditugu”*

Hiruko jokoan ohituta daude Patxi Lopez eta Iñigo Urkullu, eta baltsean jarriko ditugu. Elkarrengandik urrundu eta berriz elkartu daitezke unearen arabera. Antonio Basagoitik eta Laura Mintegik pasodoblerako bikote ona egiten dute. Hain espainola eta hain euskalduna –pasodoblea!– aldi berean. Antonio agintzen ohituta dago, baina Laurak genero bereizketarik gabeko dantza nahi du, eta ez dio agintea aitortzen.

Raquel Modubar eta Mikel Arana tangoan ariko dira. Elkarri bizkarra emanez, baina pega-pega eginda dantzan, bakarra bailiran. Gorka Maneirori eta Aitor Urrestiri salsa doinua jarriko diegu. kontaktu fisikoa saihestuz, bakoitzak bere aldaka joko erakusteko aukera izango dute. Hurrengo ataletan bikote aldaketa. ■



DANI BLANCO



**Ixiar
Rozas**

♦

IDAZLEA

Dramaturgia

GERIZPEAN HAINBAT GAUZA hartzen dituen hitza, hitz-aterkia. Dramaturgiak hitz egiten dugunean ez dugu soilik eszenara mugatu behar. Jakina da dantzan, zinean eta, tamalez, ezerezaren menara dauden ikuskizun handien dramaturgoa ere egon badagoela. Ez al dago finean dramaturgia bat argiarentzat, soinuarentzat, zatentzat, lengoiarentzat, gorputzentzat? Irakurri jarraian doan galdera zentzu zabalean, ez hitzez hitz hartuta. Ez al da dramaturgia elkarrekin lanean dihardutenen arteko solasaldi luzea? Gauzak harremanetan jartzea da, harremanez dihardu dramaturgiak, afektuez, elkarri era-

giten dieten ekosistemez. Gizartearen harreman, kultura, politika eta ekonomia ekosistema iraultzeko dramaturgiak abiarazi.

Dramak ekintza esan nahi du, egin eta egin zentzu zabalean ulertzen badugu ekin-tzaren bidez egiteke dagoen guztira luza dezakegu hitza. Ez zaitez hain dramatikoak jarri, esan zion lagun batek besteari, bihar bueltatuko dizute lantokian moztu dizuten lepoa. Hitzek ere, lengoiaren sistemak berak bezalaxe, gauzak hankaz gora eta lepo jartzeko betebeharrak dramatikoak, dramaturgiakoa, dute. ■





Unai Brea

♦ ARGIA-KO ERREDAKTOREA

LTDaren engainua

LTDa eskatu gabeko iraultza zela genioen ARGIAN 2008an. Gaur jarraitu dezakegu esaten LTDa eskatu gabe iritsi zitzaila; iraultzaren arrastorik ez da inon ageri, baina.

LTDa ez zen ezarri ikusleen eskaria zegoelako, espektro erradioelektrikoa optimizatu behar zelako baizik. Leku egin, hitz bitan. Baina nahi eta nahi ez egin beharreko aldaketak hainbat abantaila ekarriko zigula esan ziguten: irudi eta soinuaren kalitate hobea, bereizmen handiko emanaldiak, eskaintza zabalagoa...

Oraingoz daukaguna zera da: batetik, bereizmen handikoak bailiran saltzen diren emanaldi gehienak ez dira bereizmen handikoak, sasi-handikoak baizik. Seinalearen kalitatea hobetzen da, baina hori ez da HD, ingelesezko siglak erabiltzearen (izan gaitetzen *cool*).

Bestetik, eskaintza ez da zabalagoa. Tira, zabalagoa bai, baina ez pluralagoa. Operadore nagusiek kate gehiagotatik emititzen dute, baina funtsean programazio berdina ematen dute denetan. Egia da kate berri batzuk agertu eta eremu ideologikoa zabaltu dela... baina ultraeskuinera. Kate espezializatuak, berriz, hutsaren hurrengo dira, 24 orduz tarota eta telefono bidezko lehiaketa-iruzurrak eskaintzea espezializotzat hartzen ez badugu. Zer edo zer hobetu dena umeei bereziki zuzendutako programazioa izan da; orain badituzte eurentzako kate osoak. LTDa-

rekin pozik egoteko arrazoiak dauzkaten bakarrak haurrak eta fatxak dira.

Eta orain, dibidendu digitala. Espektro erradioelektrikoa optimizatzeko ezarri zen LTDa, baina oraindik toki gehiago behar da. Telekomunikazio enpresek espazio hori behar dute banda zabaleko zerbitzuak eskaintzeko (4G, batez ere); argudiatzen dutenez, telebistek badute satelitez edo kablez emititzeko aukera, baina beraiek lurreko espektroa behar dute nahi eta ez. Hala, Europar Batasunak espektroaren zati bat husteko agindu zuen, telekomunikazio enpresek erabil dezaten.

Herrialde askotan, libre geratu den espektroa –horri esaten zaio dibidendu digitala– enkantean jarri da, “alokatu”, hala esatea zilegi bada, erabili nahi duten telekomunikazio operadoreek dirua jar dezaten horren truk. Espainiako Estatuan, gobernuak 1.800 milioi euro inguru lortu du bide horretatik. Espero zen horren zati bat, 300 milioi, antenak berregokitzeko erabiltzea. Izan ere, gutxi gorabehera Espainiako Estatuko milioi bat eraikinetako antenei moldaketak egin beharko zaizkie, kateak lekuz aldatu direla eta. Baina PPren gobernuak esan du nork bere patrikatik ordaindu behar duela hori, krisia dela eta. Dibidenduaren enkantean lortutako dirua beste zerbituterako erabiliko da. ■



BERTSO BERRIAK

Argi baskoei jarriak



DANI BLANCO

Jexux Mari Irazu

♦

Doinua: Ai hori begi ederra.

Hizkuntza berdintasuna
euskarak lehentasuna
Gipuzkoatik entzuna.
Mingain gaiztoak saltatu dira
amorrutzko erantzuna
Urkullu ere ze suma
hauze mendekutasuna
ta burugabetasuna.

Ni nekatu naiz gurutzez
beti auzokoak gurtzez
argitze usteko iluntzez.
Bi ortzemuga, *El caso vasco*
ta *El tiempo de las luces*
gogoeta sakon luzez
euskal *jalgia*ren gauzez...
Cervantesen berba hutsez.

Ez da berdin giltzapea
ta unibertsitatea
kaiola eta atea.
Argi baskoa baldin baletor
nik nahiago itzalpea.
Muga zein den esatea
da nire borondatea:
Sinesgarri izatea. ■



Angel Erro

♦ IDAZLEA



JOSU SANTESTEBAN

Bi zutabe

GAURKO EUSKAL GIZARTEAREN zutabeetako bat elebitasuna da. Madarikazio arranditsu, salomondar, *erakunde-koi* bat ematen du, hiritarrok egonarriz eraman beharrekoa. Denbora edo tokia galtzeko egokia eta, txistean esan bezala –batek galdetu du nola idazten den halakoa euskaraz; “hizki gris eta txikiagoetan”, erantzun du besteak–, zenbaitetan ikusmenaren galgarria, Nafarroan bederen. Baina gorrotoak itsututa ez gauden heinean, arrazoizkoa dirudi bi hizkuntzek trataera berdina izateak.

Honek, argi eta garbi, kaltea dakarkio biak ulertzen dituenari, ahozko jardun asmo oneko eta hizkuntza-politikoki zuzenetan berbaldi bera bikoitz jasan behar baitu (hastioa ez ezik, barneko filologoari bazka emanez, edukitik des-konektarazi eta huskeria linguistikora emanez, bietako zein hizkuntzatan idatzia izan den jatorriz eta zeineta izan den gogogabe itzulia, hots, bietako zein den menpekkoa, eragozpen aspergarria). Antidoto moduan, euskaldunek baloratu ohi dute edukiak berdin-berdinak ez izatea, elebidunek plus bat jasotzea, elebakarrari akuilutzat balio liezaiokeenik, nahiz eta dudazkoa den azken honentzat etenaldi exotiko horiek funtsezkoa heldu baino lehenagoko berotze ariketak ez beste ezer direnik.

Edonola, guk egiten ez dugun euskara ez du gure ordeztasun inork egingo, eta, ondorioz, euskara normalizatuko badugu, “elebitasun asimetrikoari” eutsi behar diogu, hizkuntza gutxitua lehenetsiz, Gipuzkoako Aldundiak agerraldi publikoetan egin behar omen duen bezala. Horregatik hainbesteko polemika piztu dute Arnaldo Otegiaren *El tiempo de las luces* elkarrizketa liburuaren hizkuntza aukeraketak eta argitaratzailearen ondorengo azalpenek. Mamu bat dabil euskalgintzan zehar: baliorik ezaren mamua. ■

Antton Olariaga

Dos columnas

LA OTRA COLUMNA DE LA ACTUAL sociedad vasca también es el bilingüismo. Parece una maldición solemne, salomónica, boletín-oficial, con la que debemos cargar pacientemente los ciudadanos. Una pérdida de tiempo o espacio, que, como en el chiste –uno pregunta cómo se escribe tal cosa en euskera; le responden “en letra gris y más pequeña”–, puede perjudicar a la vista, sobre todo en Navarra. Pero hasta donde el odio no ciega, parece razonable sostener que las dos lenguas sean tratadas igualmente.

Esto, obviamente, ocasiona perjuicios al que entiende las dos, puesto que en comunicaciones orales bien intencionadas y político-lingüísticamente correctas éste tiene que oír por duplicado la misma perorata. Por eso mismo, y porque, como, citando a Shakespeare, nos recuerda Rikardo Arregi Díaz de Heredia en su nuevo poemario, *Bitan esan beharra*, ya la vida es el aburrido relato contado dos veces al oído sordo de un hombre somnoliento, suele juzgarse preciso modular el discurso, incluyendo pequeñas variaciones, a fin de evitar, en la medida de lo posible, el tedio que acabe adormeciéndonos en la más completa inactividad.

Sin embargo, nosotros propugnamos una solución más audaz que la asimetría: “el bilingüismo contradictorio”, consistente en que ambos textos presenten diferencias tan pronunciadas que terminen por negarse mutuamente, sublimando el fin de la traducción, la única disciplina cultural que se resiste a abandonar el mito de que hay una verdad traducible, una esencia comunicable. Abogamos por la enantiodromía, por la unión de contrarios. O dicho, sin traducir, en palabras de Gabriel Aresti, “Heuscal-herrian situatióne chaotico bat dago chaos handiago batequin sunsitu behar duguna”. ■



ALTZOKO HAUNDIA, TXIKIEN OPERA

Erraldoiaren gizatasuna aldarrikatuko dute txotxongiloek

David Azurza konpositoreak eta Koldo Izagirre idazleak elkarlanean mamitu duten diskoa da *Altzoko Haundia, txikien opera*. Joan den ekainean aurkeztu zuten CDa eta hurrengo urte amaierarako obra oholtzara eraman nahi dute abesbatza, musikariak, kantariak eta txotxongiloak elkartuko dituen ikuskizunean.

| IRATXE ESNAOLA |

TOPIC-EN, 2009an ateak zabaldu zituen Tolosako nazioarteko txotxongilo zentroan elkartu gara David Azurza konpositore, ahots teknikako irakasle, hainbat ahots taldeetako abeslari eta Hodei Truk Tolosako ume abesbatzaren zuzendariarekin. Azurza gizon emankorra da, inondik ere. Muntaia

eszeniko-musikal ugaritan parte hartu du, Oihu hau izeneko webgunea eratu zuen musika korala zabaldu eta argitaratzeko, eta sari andana jasotakoa da. Abesbatzen entsegu gelan eta txotxongiloen erakusketako panpina artean ibili gara konpositorearekin, diskoaren entzunalditik oroimenean geratu




David Azurza konpositorea Tolosako Topic zentroan.



zaizkigun doinu saltariek batetik bestera garamatzatela sentituz.

“Atseгина. Entzuten erraza. Polita”, izan dira diskoa entzundako zenbaiten iritziak Azurzak dioskunez. Ez alferrik, CDa mimoso landu dute estudioan eta luxuzko kolaboratzaileak izan ditu. Alabaina, proiektuaren helburu nagusia opera oholtzara eramatea da, diru laguntzak eta bestelako prestaketak ondo lotu eta hurrengo urte amaierarako, aurreikusten dutenez. Euskal Herriko antzokietan hasi eta, erdaretara eramatearekin batera, mundu zabalerara gero. “Gure Altzoko erraldoia European zehar zabaldu nahi dugu, eta ahal bada, erraldoiak egindako bidaia bera egin dezala. Internazionalago egiten lagunduko du, gainera, zuzendaria mexikarra izateak”. Manuel Marquez mexikarra izango da, hain zuzen, eszenako zuzendaria eta berak egingo ditu txotxongiloak ere, bai eta diseinatuko ikuskizuna. Eszena ez da makala irudikatzen. Batetik, Hodei Truk umeen koroa egongo da. Bestetik, txotxongiloak rola jokatzeko eta kantari eta interprete denak oholztan biolin, flauta, akordeoi, perkusio eta klarinete baxuaren zuzeneko doinuekin. Gainera, Izagirreren letrei eta Azurzaren konposizio zein abesbatza zuzentzeko lanei gehitu behar zaie Maite Arruabarrena mezzosopranoak Maria Christina erreginari eta Liverpooleko Haundiari ipini dizkien

Altzoko Haundiaren irudi ezagunenetako bat. Aldamenean, *Altzoko Haundia*, txikien opera diskoaren azala.



ahotsak. Jagoba Fadrique baritonoa izan da, aldiz, Altzoko Haundia eta parte hartzaileen artean Anjel Alkain eta Kike Amonarriz aipa daitezke. Prozesua luzea izan da, luzea izan denez.

Azurzak Eusko Jaurlaritzan diru laguntza bat eskatu zuen konposizio proiektuetarako, eta idazle pasaitarrak antzerki testuak egiteko beste laguntza bat. “Koldok faszikuluka bidaltzen zizkidan aurrerapenak eta nik haiekin egiten nuen aitzina. Obra egokituz joan ginen, harik eta tamaina eta dimentsio erabilgarria eman genion arte, umeentzako ikuskizun batek, gutxi asko, ez bailuke ordubete baino gehiago iraun behar”. Diskoaren entzunaldian ohartu gara abesbatzako ia partaide guztiak neskak direla. “Ohikoa da. Askotan, neskek egin behar izaten dituzte mutilen paperak” azaldu digu Azurzak. “Gizartearen eraginez, dantzan gertatu bezala, mutikoak ez dira korura hainbeste gerturatzen”.

Altzoko Haundia

Altzoko Ipintza Zaharra baserriko semea izan zen Miel Joakin Eleizegi (1818-1861). Helduarora iristean gaixotasun baten ondorioz hazteari ekin zion eta bere garaiko gizon altuenetakoa bihurtu zen, 2,42 metroko garaierarekin. Tolosaldean erraldoi bat bazelako entzuteak erakarrita, eta sortzen zuen jakin-minak akuilaturik, Miel Joakin erakusgarri bezala baliatuko zuen elkarte bat sortu zuen hainbat gizonen. Firmarazi zioten kontratua eta han irten zen Altzotarra mundura. Herriz herri abiatu, Espainiara ailegatu, eta European erakustaldiak egiten amaitu zuen. Londresen aitari esan omen zion esaldi gogoangarria belaunez belaur iragan da: “Aita, goazen etxera!”. Etxearen eta herriaren mira bazituen, baina horrez gain, ezberdinen sufrimendua islatzen ederki jakin du Izagirrek idatzi dituen bertsoetan, nahiz komikotasunak, bidaiaren abenturak eta Haundiaren ondradutasunak gozatu egin duten erraldoia-

ren drama. Pertsonaia maitagarriak dira Izagirrerenak. Haundia, bere ibilian, Frantziako Louis Philippe erregearekin solastatuko da, Ingalaterrako Haundiarekin borrokan jardungo du eta itsaso zabala ere ezagutuko du. CDaren aurkezpen egunean idazleak berak aipatu zuen erraldoia gizatasunaren alderditik ez dela ia apenas landu gurean, ez bada maila etnografiko edo dibulgatiboan, eta lan berri honek bide eman dezakeela, hain zuzen, aspektu horretan sakontzeko. Azurzak hautatu zuen, alabaina, pertsonaia: “Umetan senitartekoekin txangoan Altzoko Haundiaren erliebea ikustera joaten ginen. Gero jakin dut bere irudia oso gutxi erabili dela komikietan, istorioetan, ipuinetan” berretsi digu pasaitarraren ideia. Atentzioa eman dit herriak erraldoiari zion maitasunak: “Joan zen baina hemen dabil/ Miel Joakin ez da hil/ Miel Joakin hemen da/ hormako arrastotan/ Haundia bizi baita/ txiki denen altzoan” dio agur kantuak herriaren ahots hunkituan. Horrekin batera, Miel Joakinek zuen on fama ez zen nolanahikoa. Errepara, bestela, Bihotz Haundi kantaren pasarteari: “Hanka-luze Bai!/ begi-luze ez!/ beso-luze Bai!/ esku-luze Ez!/ lepo-luze Bai!/ Mihi luze ez!/ esker Luze Bai! Bai! Bai!”.

Opera, genero ezezaguna

Aurrerantzean, Donostia 2016ko proiektuaren baitan txertaturik dagoen obra bideratzeaz Tolosako Ekinbide etxea arduratuko



“Gure Altzoko erraldoia European zehar zabaldu nahi dugu, eta ahal bada, erraldoiak egindako bidaia bera egin dezala”

David Azurza
konpositorea

da, eurek luzatu baitzioten Azurzari, hain justu, herrian antolatzen diren txotxongilo astea eta koru lehiaketa uztartzeko ideia. Izan badira umeentzako opera programazioak Bilboko Arriaga antzokian, eta han-hemenka, izaten da aukera opera ikuskizunak gozatzeko, baina entzule asko opera generotik urrun bizi da. Horren adierazle dira Azurzak hastapenetan sentitu zituen kontraesanak. “Hasieran beldur nintzen jendeak opera baten aurrean izango zuen jarreraz. Aspergarri epaituko zuten beldur nintzen. Musikala edo ipuina zela esatea pentsatu nuen orduan, baina ondo hausnartuz gero, zertarako egin horrelakorik. Opera bat da eta aurreiritziak dira operarekiko jarrera markatzen duten baka-rrak”. Altzo herriko umeekin CDaren entzunaldia egin zutenean argi geratu zitzaizen aurreiritzien atzeramendua. Umeek doinuak eta istorioa berehala harrapatu zituztela argitu digu Azurzak eta bizkor batean sartu zirela erraldoiaren azalean, hark sentitzen zuena sentituz. “Umeek esaten zieten gurasoei Miel Joakini

gertatutakoa igual gertatuko zitzaizela euei ere” gogoratu du barre artean. Proiektuaren berri izan ez dutenek Altzokohaundiopera.blogspot.com helbidean dute informazio guztia. Espero dugu laster Altzoko Haundia eta bere lagun txotxongiloak Euskal Herriko antzokietan saltari ikustea. Has eta haz dadila ikuskizuna. ■



Ganbazko burrunzia

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

SORTUKO DIRA BESTEAK

MAULE
JAI ALAI PILOTALEKUA
URRIAK 20
21:00tan

Eñaut Elorrieta
Mikel Urdangarin
Alex Sardui (Gatibu)
Pier Paul Berzaitz
Arantxa Irazusta
Petti



Antolatzailea: Laguntzaileak:



argia **aniza** **berria** **amaika**



Sarrerak salgai:
Mauleko Herriko Etxean

ERDIKO KAIERA

UNAI IGARTUA URANGA

SUA FILMAREN EGILEETAKO BAT

«Lancrerentzat deabruaren hizkuntza zen euskara»



Eneko Aritzaren Lagunak elkarteko kideek *Sua* filma estreinatu dute aurten, zazpi urteko grabaketa lanen ostean. XVIII. mendean, Pierre de Lancre inkisidoreak Lapurdin egin zuen sarraskian oinarritzen da pelikula. Igartua da produkzio arduradunetako bat.

| AMAIA ZABALA TOLOSA |

Argazkiak: Leire Loidi

Eneko Aritza (Orreagako guda) film laburraren ostean, historiara jo duzue berriz. Zehazki, inkisizioa jorratu duzue.

Lehen proiektuarekin gure istorio bat kontatzea pentsatu genuen, baina azkenean Euskal Herriko historian oinarrituta Eneko Aritza eta Orreagako guda uztartzen dituen gidoia atera zen. Berrito ere historiako gai bati heletzea erabaki genuen. Helburu nagusia zen Euskal Herriko historiako hainbat pasarte jendeari ezagutaraztea.

Historiaren ikuspuntutik ekarpenik egin diozue inkisizioaren gaiari?

Ez, historikoki ekarpen handirik ez. Dakienak badaki zein izan zen Pierre de Lancren inkisizio prozesua. Jendeari gogoraraztea izan da xedea. Izan ere, denetarik egongo da, nik neronek proiektu honekin hasi arte ez nekien gehiegi inkisizioaz, baina Zugarramurdiko kasua askoz ezagunagoa egin da eta Lapurdiko sarraskiaz ez dugu ezagutza eta ikuspuntu bera.



Zein iturritara jo duzue dokumentatzeko?

Pelikularen gidoia egin duen kideak, Xaguk, liburu ugari irakurri zituen. Horrez gain, Toti Martinez de Lezea eta beste zenbait aditurekin ere bildu ginen inkisizioaz informatzeko.

Pierre de Lancre inkisidorea filmean ageri den bezain ankerra eta botereatsua al zen, garaiko dokumentuen arabera?

Bai, eta ez garaiko dokumentuen arabera bakarrik. De Lancrek berak 1612an idatzitako liburuan dio 3.000 pertsona auzipetu zituela, horien artean 500 haur, eta 600 pertsonatik gora torturatu eta erail zituela. Erraz esaten da! Gainera, kontuan hartu behar da garai hartan arrantzale asko Ternua aldera joaten zirela arrantzara eta tratuak egitera. Ez zeudenez, inkisizio prozesuan erre zituztenek babes gutxiago aurkitu zuten herrian.

Elizak ere izango zuen erantzukizunik honetan guztian.

Elizaren babesarekin Henri IV.ak bidalita etorri zen Pierre de Lancre Lapurdira. Baina baziren inkisizio prozesu horren aurka altxatu ziren apaiz batzuk eta hauek ere epaituak eta horietako asko erailak izan ziren.

Nortzuk ziren sorginak?

Ordura arte sorginak ez ziren existitzen, hori geroztik sortutako hitza da. Jende arrunta zen, lurra gurtzeko eta beraiei jaiak egiteko elkartu ohi ziren, eta garai hartako gizartean ez zeuden gaizki ikusita. Eliza etortzean, ordea, dena aldatu zen. Familia batzuk beste batzuk hainbat arrazoiengatik sorginkeriaz salaketa jartzen hasi ziren, Elizaren babesarekin.

Sorginen gehiengoa emakumezkoa zen. Zein zen emakumearen rola garai hartan?

Emakumeak oso paper garrantzitsua zeukan euskal gizartean, Pierre de Lancrek berak

Lancre

Pierre de Lancre (1553, Bordele - 1631, Paris) jurista eta funtzionario frantziarra izan zen. Izatez Errostegei abizena zuen, aitona baxenafarra baitzuen. Baina euskal jatorriaz ez zuen ezer jakin nahi eta Lancre abizen frantsesagatik aldatu zuen. 1609an Henri IV.ak Lapurdira bidali zuen sorginkeria kontuak ikertzerako eta inkisizioak Euskal Herrian egin duen sarraskirik handiena burutu zuen. Lancrek ez zituen lapurtarren ohiturak ulertu nahi izan, deabruarekin lotzen baitzituen.

horrela zioen bere liburuetan. Orduko Lapurdiko “sorgin” hauek euskaraz mintzatzaren eta euskaldun sentitzen zirela ere idatzi zuen, ez frantses eta ez espainiar. Lancrerentzako deabruaren hizkuntza zen euskara. Baina emakumez gain, gizon eta haurrei ere kontra egin zien Lancrek, baita elizgizonei ere.

Nola lortu duzue 700dik gora lagunak parte hartzea filmean?

Euskal Herri osoan izan gara grabaketak egiten, eta herri bakoitzean saiatu gara bertako jendeak parte har zezan. Herriko kontaktuak egin, kartelak jarri, komunikabideen bitartez grabaketa egingo dela adierazi... Gutaz aparte, herritar asko animatu da eta azkenean, 700 pertsonatik gora izatera iritsi gara.

Grabaketa, garraioa, ekoizpena, jantziak, materiala eta abar gastu handia da azkenekoa. Nondik lortu duzue finantzazioa?

Dirurik gabe egindako proiektua izan da. Aldian behin kontzerturen batzuk edo txosna batzuk jarrita diru pixka bat atera dugu, baina grabaketa prozesu guztia jendearen borondateari esker izan da. Bakoitzak bere ogitartekoa eta gasolina ordaintzen genuen. Ordaindu beharrekoa postprodukzioa izan da, hor bai, gastu potoloa izan dugu.

Bitxikeriak ere badituzue, esaterako txerrikumea autoan hartuta zindoaztela poliziak geratu zituztenekoa.

Txerrikumea bakarrik ez, furgoneta ireki eta ezpata ugari, soldadu-jantziak, generadorea, gasolina eta abar ikusi zituzten. Hainbat kontroletan geratu gaituzte eta bakoitzean aitzakia bat bilatu behar izan dugu nolabait alde egiteko. Abentura politak bizi izan ditugu.

Pelikulako bi protagonistak atxilotu zituzten.

Kolpe handia izan zen proiekturako. Azkenean inkisizioan oinarritzeko arrazoietakoa bat hori izan zen, iruditzen zaigulako gaur egun inkisizio hori errepikatzen ari dela, eta guk geuk jasan behar izan dugu gainera. Pelikularen erdian protagonistetako bi atxilotu

“Zugarramurdiko kasua askoz ezagunagoa egin da, eta Lapurdiko sarraskiaz ez dugu ezagutza eta ikuspuntu bera”

Eneko Aritzaren Lagunak

2002. urteko abenduan Algorta eta Tolosaldeko –batez ere Ibarako– hainbat gazte Urruñan elkartu ziren kamera txiki batekin, asmo handiegirik gabe. Pixkanaka *Eneko Aritza (Orreagako guda)* film laburra egin zuten, 80 bat lagunen parte-hartzearekin. Herriz herri filma erakutsi eta arrakasta zuela ikusita, *Sua* lanari ekin zioten. “Film laburra bost asteburutan grabatu genuela-eta, pelikula hamar asteburutan egin genezakeela pentsatuz abiatu ginen, baina zazpi urte behar izan ditugu azkenean”. Egun, kultur, kirol nahiz aisialdi ekintzak hartzen dituen kultur elkarte da Eneko Aritzaren Lagunak.



zizkiguten, eta nahiz eta gero absolbitu, hori hor geratzen da. Pelikulako hainbat zati eraman zituzten eta irudi horiek ez ditugu oraindik berreskuratu.

Mauleko gazteluan, matxinada grabatzera hurbildu ziren 300 lagunekin, kalejira eta akelarrea antolatu zenuten grabazio ostean. Nolakoa da gaur egungo akelarrea?

Gaur egungo akelarreak, guk antolatzen ditugunak behintzat, lehengoak bezalakoak dira. Lagun koadrila elkartu, afari on bat prestatu, mandragorarekin topa egin eta hortik aurrera musika pixka bat jarri, dantzatu, ondo pasa, ligatu... Gure iritziz, lehengo akelarrea antzeko zerbait zen, lurra gurtzeko baliatzen zen jaia.

Etorkizunera begira ba al duzue beste proiekturik buruan?

Proiektuak beti daude buruan bueltaka, baina esan behar da azkeneko proiektu honek dezente erre gaituela eta hainbeste urteren ondoren egoera ere aldatu egin dela. Dena den, zer ez dakit baina zerbait aterako dela uste dut, agian ez da filma izango, antzezlan izan daiteke, edo auskalo. Oraingoz, *Sua* filma ari gara zabaltzen, deitzen diguten herrietan ematen. Herriatik ateratako proiektua da, herriaren esku uzten dugu, eta gu gustura joango gara gure proiektua edozein herri-tan erakustera. ■



Urriak 8 Astelehena 11:30/19:00
Hitzaldi didaktikoa:
“**Xabier Gorazarre**”
Xabier Monasterio.

Urriak 9 Asteartea 11:30/19:00
Kantagintza:
“**Gabriel Arestiren kantuen gainean**”
Anje Duhalde, Josu Zabala eta Rafa Rueda.

Urriak 10 Asteazkena 11:30/19:00
Zine Txokoa:
“**Diot. Gabriel Aresti**”
Abra Produksio Etxearen dokumentalaren proiektzioa.

Urriak 11 Osteguna 17:00
Irratsaioa:
“**Arestiren garaia kantuz**”
Pedro Elias Igartuak Bilbo Hiria irratia erantzutuzuzenean eskainiko duen emanaldia.

Urriak 13 Larunbata 12:00
Txango kulturala:
“**Arestiren Bilbo**”
Edorta Jimenezaren eskutik,
Kafe Antzokitik abiatuta.

Urriaren 8tik 14ra bitartean
Erakusketa:
“**Bizitzaren erakusgarri**”
Erakusketa aste osoan zehar.

Prezio bereziak langabeentzat

Matrikula zabalik!!! 2012-2013

Gabriel Aresti

euskaltegia eta akademia

Txiki Aresti
Niñ@s

Gazteen Aresti
Jóvenes


Helduen Aresti
Adultos

Urritik aurrera

San Bizente 2 - 4.a - Bilbo - Tel: 94 423 75 91 - bulegoa@gabrielaresti.com

www.gabrielaresti.com

Iragana beste aberri bat da



- Hi, historialari, hau bai historia liburu ona.

Javierrek Eric Hobsbawmen *The age of extremes: The short twentieth century, 1914-1991* liburuaren gaztelerazko edizioa zuen eskuan 1996ko ostegun hartan. Pasa den mendeko 80ko hamarkadan ezagutu nuen Javier euskaltegi hurbildu zen batean, ez zuen asko iraun. Nik ere ez nuen denbora asko igaro Komite Internazionalistetan, Javier lankide boluntarioa zen, ez zitzaion arrotza Atlantikoa zeharkatzearena, egun ere bisaz mukurdu edukiko du igarobidea.

- Oso liburu interesgarria. Erantzun nion Hobsbawmen liburu ikustean. Lehendabizikoa unetik Javierrek liburu horrekiko zuen interesak piztu zuen nire jakinmina. Elkarrekin ezer hartzeko gonbita luzatu nion, urteak generamatzen elkarren berri izan gabe. Liburu ordaindu eta hor gara biak solasean Rocheke besaulkian jarririk. Ni ardotik ari nintzen berak kafe bat hobetsi zuen. Australiatik etorri berria zen, eta nazioarteko elkartasuna tarteko AEBetan denboraldi bat igarotzeko asmoa zuen. Entzun, entzuten nion, baina nire jakinmina nahi nuen ase. Berbaz elikatzen den horietakoa da Javier, eta bere solasaren eten txiki bat probestu nuen liburuaz galdetzeko. Ez zuen ezer ezkutatu beharrik, Hobsbawmek nazionalismoaren kontra zerabilen diskurtsoa kilikagarria zitzaion Javierri. Abertzaletasunaren kontrako mailua zen liburu erosi berria.

Luze joko luke solasaldiaren eztabaida laburtzea, sesioa izatera ailegatu ez bazen ere, tarteka txinpartek

argitu zuten Rocheke mahaia. Agurtzean, garai batean ez bezala, ez genion elkarri oihukatu Biba Rusia! (nik beti gaineratzen nuen, euskaldun!) halere, ezin esan tarte gustagarria pasatu ez nuenik.

Javierren moduko askok Biblia gisa erabili nahi izan dute Eric Hobsbawnen hainbat liburu, eta Bibliarekin gertatzen denaren antzera irakurritakoaren interpretazioa ez da maiz norabide bakarrekoa. Alexandriakoaren liburuak Bibliatzat hartu, hain justu ere, Europaren oinarrian kristautasuna ezartzen dutenen teoriak sutsuen borrokatu dituen historialariaren obrak Bibliatzat hartu.

Egipton sortua, aita poloniar jatorrizko ingeles judua, ama ere judutarra, Vienakoa. Viena eta Berlinen bizi ondoren Eric umezurtza Londresera joana osabaren abarora. Alderdi komunista kidea 14 urte zituenetik. Cambrigden ikasia eta mundura irekia.

Prentsan argitaratu diren obituariok errepasatu eta marxista hitza da gehien errepikatzen dena, tira, ez da zuzena, historialaria izan zela diote denek. Ondoren, ingelesa, komunista eta judua ageri dira, bada intelektuala eta pentsalaria zela aipatzen duenik. Pablo Antoñana zenak ohartarazi zigun gehiegizko abjektibitateak dakarren kaiolatzearen arriskuaz. Bilorik ez jazzalearen mihian. Juan Jose Carreras zenak ere iraganeko hainbat historialarik ondoren ezarri dizkieten kategoria historiografikoei ezin dietela aurre egin azpimarratu zuen, hil diren historialari horiek ezin gainetik kendu modu interesatuan jarri dizkieten etiketak. Nago ez ote den gauza bera gertatuko Alexandriakoarekin.

Hobsbawm marxista zen, baina historialari edota pentsalari liberal, kontserbadore, edota erreakzionario bat hiltzen delarik ez dira gisa horretako adjektiboak baliatzen. Liberal hura gogoratzean, maiz, handia, garrantzitsua, errepikaezina, maisuen maisua eta gisa horretakoak irakurriko ditugu. Beti ere, gauden honetan, Hobsbawm ezerean gainetik marxista zela azpimarratzea marxismoaren aldeko aldarriztat har daiteke.

Baina ez nadin desbidera. Ene esperientzia laburrean bi izan dira jazzalearen liburuaren karietara izan ditudan eztabaidak, eta bietan Hobsbawmek nazionalismoari egin kritika eztabaida iturri. Denboran aurrena Zaragozako ikaskide batekin izan nuen. Aragoiarrak *El linaje de Aitor* liburu *The Invention of Tradition* lanaren graduan ari zen jartzen. Egiaren aitortzeko, badute antzik, ez naiz bi autoreen judutarasunaz ari, Hobsbawmek Israelgo estatua arbuizaten baitzuen. Biak ala biak tradizio jakin batzuen asma-



zioaren nondik norakoak agerian uzten dituzte, hori bai, Ericek zuzendu zuen liburuan, maila berean jartzen dira Eskozia, Gales eta Ingalaterra. Ezin esan bezgauza Aitor desmitifikatu zuenaz.

Beti ere, biak dira liburu gomendagarriak, hona arrazoietako bat. Egun aski ongi erroturik diren tradizioak berriki, demagun XIX. mendean, asmaturikoak badira, horrek asmazioaren zilegitasuna frogatu besterik ez du egiten, antza denez, Monglavek edota Xahok ia ezerezetik ezer eraiki zuten, arrakasta handia lortuz, eta usu arrakasta horren arrazoiak eta tesuingurua dira ikertzen ez dena. Zer nolako baldintzatan gertatu zen arrakasta hori asmazioa bera bezain interesgarria da. Zaragozako ikaskidearentzat iruzurra zena niretzat egungo errealitatearen erakusgarria zen.

Pasa den astean Kuria kaleko La Hormiga Atómica-n Javierrekin egin nuen topo, kasu honetan ni nintzen eskuetan liburu bat zuena, eta patuaren kiribilak, Hobsbawmekin harreman zuzena izan zuen Josep Fontanaren *Por el bien del imperio*, una historia del mundo desde 1945 nire eskuetan.


- Ezagutzen al duk. Esan nion liburutzarra erakutsiz. Aurpegian antzeman nuen ezezaguna zitzaiola. Rochen izandako solasaldia ekarri nion gogora. Hobsbawm eta Fontanaren artean kideetasun ugari topatuko ditugu. Biendako Europaren motorra mestizajea eta disidentzia dira. Biak dira interesgarri oin bat lokatzetan dutelako. Bandits idatzi zuena gaizkileztat zuen Britania Handiko MI5ak, eta inork gogoratuko du Josep gerrari ezetza ematen. Bien esanak inoiz erabili izan dituzte nazionalismoaren kontrako mailu edota higitai gisa.

Ez dakit Javierrek Fontanaren azken liburua irakurriko ote duen. Ez litzaioke gaizki etorriko, Fontana bezalako “espaniarzale” batzuen jarrera ulertzeko tenorean, izan ere, urte bete eman behar baitu Bartzelonan Javierrek. Gero eta gutxiago ulertzen dut batzuen nazioarteko elkartasuna.

Fontana eta Kataluniaren independen-tziaz hurrengo batean hitz egin beharko dugu. ■



Patxi Larrion



Ezkerreko orrian:
Eric Hobsbawm;
urriaren 1ean hil zen
Londresen 95 urte
zituela.

Goian ezkerretara:
Josep Fontana,
Bartzelonako Pompeu
Fabra unibertsitateko
historialaria.

Goitik behera, egileak
artikulu honetan
aipagai dituen hiru
liburuen azalak.





Helduen literatura | ITZULPENEA

Gerrako zaldia.
Michael Morpurgo.

Itzultzailea: Koro Navarro.
Erein, Batera saila, 2012.

Zein animaliago?

ERABAT EZEZAGUNA nuen Michael Morpurgo (Hertfordshire, Erresuma Batua, 1943) eta horra sorpresa, irakurri berri dudana liburua zinemara eta eszenatokira eramanez dutela jakitean. Dirudienez, sonatua izan da eleberriaren jatorrizko izenburua hartu duen Steven Spielbergen filma: *War Horse* (2011). Eta urtebete beranduago, Koro Navarrok euskarara itzuli du Morpurgoren eleberria, *Gerrako zaldia* izenarekin.

Egia esan, ez dut liburuaz gozatu eta ez dut arrazoia guztiz argi. Ez dakit istorioa, itzulpena, kontatzeko modua, nire kontzentrazio falta, edota denen arteko nahasketa moduko bat izan ote den amaieran kostata heltzeko faktorea. Edozein kasutan, harritua naiz, izugarri maite baitut Lehen Mundu Gerra garaian kokatzen den literatura, eta baliteke hura izatea eleberriaren aurrerak egiteko ene interesik behinena. Bestela, kontatzen den gazte eta zaldi baten arteko istorio xamurra astunegi suertatu zait.

Hala eta guztiz ere, *Gerrako zaldia* eraikitzeak, idazleak baliatu duen material berriak eta etengabe erabiliari, ikuspegi originala gaineratu diola iruditzen zait. Izan ere, mundua markaturik utziko duen Gerra Handia bezalako basakeria eta, orduko ez-inoren lur babesgabea, honek eragindako zabor ikaragarriaren lur mortua gogora dakarkigu planteamendu pertsonal eta berezi xamar batekin abiatuta: nola bizi zuten zaldiek Gerra Handia? Zein da Joey zaldiak gordetzen duen orduko kaosaren memoria? Non izan zen zaldien heriotza-tasa altuena? Zenbatekoa?

Jakina galdera erretorikoak direla, baina ez erantzunik ez dutelako, baizik eta erantzuna bilatu nahi izan ez zaielako. Alegia, planteatzerik ere inori bururatu izan ez zaiolako. Jakin nahi duenarentzat “zaldirik ez bada muniziorik ez da [...] zaldirik ez bada, urik ez da fronteko gizonentzako, zaldien mende dago armada osoaren bizimodua” (138. orr). Ene kasuan, hauxe izan da Morpurgok oparitu didan gerraz hausnartzeko ikuspegi berria. Hortaz, 14ko gerra (eta noski, gerra oro) bezalako erokeria izugarria, non giza bizitzak zera garrantzitsuena bilakatzen diren, animaliez galdetzea ez da batere inozoa. Izan ere, bada animaliak eta gizakiak batu ahal izango dituen galdera (erretoriko? Erantzun ezinezko?) bat: zergatik eta zertarako gerra?

Erantzuna jakin ezin eta, hala ere, parte hartzea behartu dituzten zaldien protagonismoak gerraren absurdoa agerian uzten du. Baina gizonen jakin nahi ezak eta planteatu ahal izanak, absurdoa areagotu egiten du: nola hil lezake gizon batek beste bat, eta jakin ez egiaz zergatik hiltzen duen? (102. orr).

Xamurtasunaz gain, ideia solte interesgarriak topa daitezke liburu honetan. Horiengatik, bada, merezi du irakurtzea. ■



Saioa Ruiz Gonzalez

Foruzaletasunaren abaroan

EUSKAL HERRIAREN bilakaera politikoan funtsezkoa izan den garaia eta gaia aztertu ditu Joseba Agirreazkuenaga EHUKo katedradunak, urte luzez: foruen eta autogobernuaren inguruan XIX. mendean eman ziren eztabaidak. Honako liburua eta iaz Nevadako Unibertsitateak argitaraturiko *The Making of the Basque Question*, ikerketa horren emaitzak dira.

Liburua “Konstituzio” kontzeptuaren argipen batekin hasten da. Euskal Herrian kontzeptu horrek esanahi politikoa bereganatuko du XVIII. mendean, herriaren borondatea historian zehar gorpuztutako legedian interpreta daiteke beraz, foruetan alegia. Erresuma Batua ere halako arauketa bat zuen, Parlamentuak hartutako erabakien bildumak osatzen zuen bertoko konstituzioa. Aitzitik, XVIII. mende amaieran erro ezberdineko konstituzioak sortuko dira, lehenik Frantzia eta ondoren Espainia. Ordura artekoa gillotinatua eta nazio berria birfundatzera zetozen konstituzioak ziren, estatu uniformearen oinarri. Euskal lurraldeetako Batzar Nagusien eta Espainiako legebiltzarraren arteko talka begibistakoa da. Ikuskeraz ezberdin horiek hurrengo hamarkadetan sortutako eztabaidak eta uztartze nahiak aztertu ditu Agirreazkuenagak, eta diotsu, 1839tik aurrera auzi hura “euskal arazo” gisa ulertu zela.

Elite politikoaren gehiengo handi batek foruen alde jardun zuen, bakoitzak bere erpinetik, izan liberal zein karlista. Foruak izan ziren, nolabait esanda, euskal nazionalitatearen abaroa. 1876an foruak ezabatu zirenean, “abertzaletasun bikoitzak”, hots espainiar zein euskaldun izatea, zentzua galdu zuen.

Hasierako pasarte honek ondo laburbiltzen du Agirreazkuenagaren saiakeraren helburu nagusietako bat: “Gure gizartean iraganak bere grabitazio indarra erakusten du. Azken batean, erakundeak kate begiz loturik daude. Ez dira denboratik at dauden elementu isolatuak. Horregatik, ezinbestekoa dugu euskal erakundeen kate begiak zeintzuk izan diren ezagutzea”. ■



Urko Apaolaza

Euskal herritarren burujabetza.
Joseba Agirreazkuenaga

Saiakera. Alberdania, 2012.



Distirak beltza ikusten utz diezazula

Vol.I

Glaukoma.

Bonberenea Ekintzak.

Iraupena: 32'19".

Biniloa + CDa: 10 euro.

CDa: 8 euro



TOLOSA bilgunea dute baina herri askotako lagunek osatzen dute Glaukoma. Taldearen debutak ilusionatuta nauka; ederra da. Iaz ezagutu nuen, Tolosaldeko musika talde gazte batzuek *Sputnik 11* izeneko bilduma kaleratu zutenean. Taldea txukuna iruditu zitzaidan orduan, baina ia oharkabean egin duten disko honetako kantuak erabat borobila dira. Euskaraz zein gazteleraz abestutako piezatan, reggaea, raggamuffia eta rapa dira oinarri nagusia, baina

bada funky, jazz, latino eta rumba tantarik ere, bere tamaina justuan aberastera heldu direnak. Gipuzkoarrak dira taldekide guztiak, baina idatzitako hit!-ak entzunda, sinetsaraziko dizute lurralde beroagoetatik datozela; beraien burua azal zuri dun belztat dute. Hitzetan ere maila ona erakutsi dute, ederto transmititzen dituzte hainbat giro, gai eta egoera. ■

www.glaukomaband.com

GLAUKOMA, Juantxo

«Ez ditugu atsegin klitxe eta estereotipoak, askotan hutsalak direlako»

“Errimen meategi, bertsoen etxea”. Etorri ona daukazu Juantxo. Non inspiratzen zara?

Gehienetan zaila egiten zait errimen meategira iristea eta batzuetan bere kasa dator. Idazten jartzea da kontua, batzuetan gauza baliagarriak ateratzen dira.

“Ladies & gentlemen” berdintasunaren aldeko kantu desberdina da, moralkeria gabe, kaleko mailan idatzitakoa...

Ikusten dugun zerbait da, edozein juergatan antzeman baitaiteke emakumearen aurka dagoen biolentzia estrukturala, gizartean dagoena.

“Izanaren zamak” bultzatzen gaitu talde bat egin eta barrukoa askatzen?

Bai, izanak zama handia har dezake eta talde batek lagundu dezake hori arintzen, baina barrena askatzeaz gain oso garrantzitsua da gauza baliagarriak esatea, konta-



tzea edo interpretatzea, pentsarazteko eta zerbait astintzeko balio dezaketenak.

Zer da “garden ikusten utzi nahi ez” duzuen?

Gizartea da glaukomak jota dagoena eta garden ikusten ez duena. Ez dugu atentzioa behar den tokietan jartzen eta gauza distiratsu eta boteretsuei besterik ez diegu kasu egiten. Gutxitan agertzen dira telebistan hiri bateko periferiako zonaldeak. Musikan gauza bera gertatzen da estilo

minoritario edo periferikoekin.

Betiko lau musika taldeak dabilta bueltara, gehienon arreta eskuratzen dute; eta inguruan beste hainbat estilo, talde eta ekimen ere badaude.

Ez zarete “ez ganstak, ez rastak”. Ez duzue tri-buekin ezkondu nahi?

Ez gara gangstak eta ez gara rastak, Gipuzkoako hainbat herritako bost mutil gara,

gustuko dugun musika egiteko gogotsu. Ez ditugu atsegin zerbait musika estilotan ikusten ditugun klitxe eta estereotipoak, askotan hutsalak direlako.

Ezohiko sentitzen zarete musika eszenan?

Ez. Oso gustura aritu gara orain arteko kontzertuetan eta ez gara arraro sentitu, baina egia da rapa eta zerbait reggae mota fal-tan ikusten ditugula Euskal Herrian. ■



Euskal dantzari balioa ematea xede

HERRI SOINU elkarte uztariztarraren eskutik, euskal dantza eta musika tradizionalak indartu nahi dituen festibal berria sortu da Errobi herri elkargoan (Lapurdi). Herri Uzta deitu diote eta urriaren 12tik 14ra arte luzatuko den asteburuan iraganen da Luhuso, Ezpeleta, Itsasu eta Arrangoitzen. 300dik gora dantzari eta musikari espero dira, Euskal Herriko bazterretatik etorriak, amateurrak nahiz profesionalak, eta antolatu diren agerkarien eskaintza ere zabala da: hitzaldiak, kontzertuak, espektakuluak kaleetan, ikuskariak aretoetan... Gonbidatu berezirik ere izango du lehen edizio honek: Katalunia. Perpinyàtik heldutako Cobla taldeak, bi emanaldi eskaintzeaz gain, sardana dantzan ipiniko ditu bertako taldeak.

Aipamen berezia merezi du *Ravel Jauna* obraren estreinaldiak (larunbatean, Luhusoko Harri Xuri aretoan). Ikusgarri hau Etorkizuna Kontzeptuak talde osatu berriaren lehen sorkuntza lana da eta hiru koreograforen laguntzaz –Maidier Oyarzabal, Bittor Corret eta Christian Larralde– ondu dute. Dantza konpainia honek belaualdi berriaren ikur eta bilgune izan nahi luke, Peio Labeyrie lehendakariari Euskal Kultur Erakundearen webgunean (www.eke.org), Xan Airek eginitako elkarrizketa lizean, irakurri diogunez. Hona hemen zenbait pasarte.

“Euskal dantzari gazteak erakarri nahi ditugu eta erakusleho iraunkorra izan. Biziki proiektu ederrak egin izan dira gazteen artean, baina arrunt puntualak zirenak. Iraunkorra izatea inportantea da haurrei begira ere, haiei erakutsi beste helburuak ere izan daitezkeela dantzan. (...) Amateurrei ezin diezu galdegin ikusgarri anitz egitea. Horretan dugu mugarria gaitzitu behar. Eta gure erakuslehoia eremu berrietara hedatu. Azkenean, dugun arazoa diruarena ere bada”.

“Zer erakusten dugu, adibidez, kanpoko jendeari? Miarritzera heldu diren enpresei, flamenkoa erakusten zaie kongresuetan. Zergatik ez zaie Euskal Herriari buruz ontsa eraikia den gauza erakusten? Gure kultura erakusten duena. Azkenean, gaur egungo dantza talde gehienak kanpinetan ari dira turisten aitzinean,



EKE

Peio Labeyrie baionarrak Etorkizuna Kontzeptuak elkarte berriko zuzendaritza lanetan dihardu. Aurretik, Zpeiz Mukaki eta Zpeiz Banako proiektuetako kide izana da, eta EHZko antolatzailea.

diru-zama miserable baten truke. Beharko litzateke, orain, gu zinez garena erakutsi ikusgarri sakonean, bere balio zuzenean ordaindua litzatekeena. Inportantea bide bat zulatzea da, gero bertzeak tiratzen baitira, eta denak elkarrekin aitzinatzen baikara. (...) Gure burua errespetaraztea da giltza. Baldintza duinetan aritzea merezi dugu guk ere”. ■



Izan bedi emakumea

KOLDARRAK antzerki taldeak *Izan bedi emakumea* antzez-lana eskainiko du urriaren 26an Usurbilen (Gipuzkoa), Sutegi kultur etxeko auditoriumean. Koldo Campos idazle eta ekintzaile internazionalistak idatzitako obra da *Hágase mujer*, eta urtetan antzeztu da Latinoamerikan, hango antzerki-talde ugariaren eskutik. Jose Luis Otamendik ekarri zuen euskarara. *Izan Bedi emakumea* fikziozko komedia da, genero ezberdintasuna irri egiteko arrazoi bihurtzen duena. Paradisuan kokatzen du trama. Alberto Agirrebeña, Gaizka Astigarraga, Itziar Elias, Pablo Domingez, Naroa Epelde eta Koldo Campos bera arituko dira oholtza gainean. ■

Sormenak 24 ordu

ESTIA Bidarteko ingeniartza eskolak eta Euskal Kultur Erakundeak erronka proposatuko die urriaren 19an literatur alorreko eta ikus-entzunezko arteetako sorkuntzaile gazteei: egun horretan bertan emango zaien gaia oinarritzat eta 24 orduko epean, obra berria sortzea. Estia ingeniartza eskolak sormen mekanismoak ikerituko ditu, beti ere industri teknologia aitzinatuetan baliatzeko. ■



- Suteen aurkako babesa
- Uren horniketa eta trataera
- Instalazio elektromekanikoak

Ibarra, 10 · 7. Pab · 48300 Gernika · Bizkaia

☎ 94 625 54 50 · Fax 94 625 54 00

Ez dezagun iparra gal

IKUSKARI ezin aproposagoa hautatu dute, nire ustez, getxotarrek, Ipar Euskal Herriko kultura ezagutaraztea helburu duen zikloan txertatze-ko (*Iparra galdu gabe!*, urriak 4 – azaroak 4). Bidasoa arrakalatzat hartuta, hangoak eta hemengoak hurbiltzeko saio umoretsua ez ezik, gure kontraesanak –gure lotsak– nabarmentzen dituen parodia da *Bidaso: biga so*. Barreak barre, umorea umore, ipurdi agerian senti liteke ikusle minbera.

Ezagunak zitzaizkigun Pantzo Hirigaraien antzezpenak, antzeratzeak eta ziriak. Ezagunak zitzaizkidan, bereziki hedabide honi esker,

Hegoaldeko euskaldunak imitatze-ko duen arte gupida gabea –ederki gorritu zizkigun masailak orain dela hamabost bat urte, Argia Sarietan aurkezle lanetan aritzea egokitu eta gipuzkoarren plantan hizketan hasi zitzaigunean, *eske* eta *klaro* gora, eta *eee* eta *jode* eta *pues* behera–.

Harenak ez bezala, sorpresa dira, zentzu honetan, Kike Amonarrizek taularako dituen dohainak, txiste kontalari Euskal Herri osoan aritu zitzaigunean edo aurkezle lanetan diharduenean, tankera hartu izan diogun arren.


Bikote honen irudimenetik datorrena hitzaldi umoretsua dela irakurriko duzu kultur zikloko esku-orrian. Akaso, Iparraldeko eta Hegoaldeko gazteen artean elkarren ezagutzaz egindako ikerketa burutsua duela oinarri, eta ikerketa sakon horrek, titulurik izatekotan, haxe lukeela, Amonarrizen hitzak hartuta: “Benetan elkartzen gaituela uste dugun hori ote den gero benetan elkartzen gaituena edo ustez banatzen eta aldentzen gaituzten gauzak ote diren

azkenean benetan batzen gaituztenak”. Tesi doktoral potolo horietakoa bailitzan.

Imajina litekeen bezala, formatu horretatik dezente urrunago doa bikote honen eskaintza. Esketxaren, hitz-jolasaren eta serio itxurako datu eta galderen bidez, elkarrengandik urrun baino urrunago, apenas zerikusirik izango ez bagenu bezala bizi garela frogatuko digute barrea eragiteko aitzakian; uste usteletara eta topiko ezin merkeagoetara eraman gaituela elkarren berri ez bilatzeak; nola ez, hizkera eta portaera ezberdintasunak; eta, bai, uste baino frantsestuago dau dela batzuk, eta uste baino espainolduago, besteak. Ikuslea, bestalde, saltsaren osagai bilakatuko da konturatzerako.

Geure neurrira egindako ispilua duzu *Bidaso: Biga so. Ipar Urriak eta Hego Erak* obra; dibertitzeko, ikasteko eta autokritikarako, euskaldun orok aurrean ipini beharko genukeena.

Urriaren 17an eskainiko dute, 20:00etan, Getxoko Torreñe aretoan. ■



Iparra galdu gabe! Getxoko zikloak Ipar Euskal Herria ezagutaraztea du helburu. Besteak beste, *Bidaso: Biga so. Ipar Urriak eta Hego Erak* Kike Amonarrizek (behean ezkerrean) eta Pantzo Hirigarai (goian) ondutako hitzaldi umoretsua entzuteko parada izango da.

Tiroide guruinaren trastornoak

BOST ZENTIMETROKO diametroa besterik ez du, eta 30 gramo inguruko pisua. Neurritz eskasa eta ezgauza dirudien arren, tiroide guruina da gorputzeko organoek zein erritmo-tan lan egin behar duten erabaki eta erregulatzen duena (abiadura metabolikoa esaten zaio horri). Eta bere lana ondo betetzeko, odolean zehar zirkulatzen duten substantzia batzuk jariatzen ditu, T3 eta T4 izeneko hormona tiroideoak. Hormona horiek fabrikatzeko, ezinbestekoa da TSH izeneko beste hormona baten esku-hartzea, azkeneko horrek erabakitzen baitu une bakoitzean zein hormona tiroideo behar duen gorputzak.

Aipatutako pauso horietakoren batean edozein akats gertatuz gero nahasmendu ugari sor daiteke, eta horixe gertatzen zaio 250-300 pertsonatik bati gurea bezalako gizarteetan, Endokrinologia eta Nutrizioko Espainiako Elkarteak emandako datuen arabera.

Hipotiroidismoa

Tiroideak behar baino hormona gutxiago fabrikatzen dituen gertatzen da. Gaitz horrek jota dauden pertsonen gizentzeko erraztasun handia dute, erraz nekatzen dira eta depresio eta idorre-riarako joera handia dute. Azala lehor eta latz bihurtzen da, eta ahotsa erlastu eta zakartu egiten da. Sarritan, gainera, pentsamendu-moteltasuna eta oroimeneko akatsak ere agertzen dira. Behin diagnostikoa baieztatu ondo-

ren —aski da horretarako odol-analisi bat—, tiroide guruinaren funtzioak indartzen dira farmako egokien bidez.

Hipertiroidismoa

Justu alderantzizkoa gertatzen da. Alegia, tiroideak lan gehiegi egiten du eta horrek urduritasuna, pultsu bizkorregia, takikardiak, apetituaren gehikuntza, pisu-galera, hiperaktibitatea, insomnioa, beherakoak, eskuetan izerdia, dardarak eta argiarekiko sentikortasuna eragiten ditu. Diagnostikoa baieztatzeko ekografia bat —tiroidearen tamaina, itxura eta funtzionalitatea ikusteko— eta

odol-analisi bat egiten dira. Gaixotasunaren susmoa berretsiz gero, hormonaren gehiegizko maila tionamida izeneko farmako talde baten bidez blokeatzen da. Kasu larriagoetan kirurgia ere beharrezkoa izan daiteke, eta guruinaren zati bat erauzten da, hormona gutxiago ekoizteko. Operazio kirurgikoan egindako ebakia ez da oso handia izaten, eta normalean gaixoa bere eguneroko bizimoduari berrekiteko moduan egongo da hamar egunen buruan.

Iodoa, tiroidearen erregai nagusia

Hormonak fabrikatzeko tiroide guruinak 200 mikrogramo iodo behar ditu egunero, bestela tiroidearen inflamazioa eragiten duen bozio izeneko trastorno agertuko da. Gaitz hori saihesteko, arraina kontsumitzea eta itsasoko gatza erabiltzea gomendatzen da.

Tiroidea handitua dagoe-nean normalean hipertiroidismoa izango da, baina tumorea ere izan daiteke. Zalantza hori argitzeko bada erraz egin daitekeen proba bat: edan ura ispilu baten aurrean zaudela, eta irensterrakoan burua zertxobait atzerantz makurtua badaukazu, agian eztarrian bulto edo koskorren bat nabaritu eta ikusiko duzu. Kasu horretan komeni da berehala medikurengana joatea, koskor horren arrazoia zein den argitu eta behar izanez gero, irtenbidea ahalik eta lasterren jartze-ko. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera




web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Litxarreroon lilura

ARDOGINTZAZ aritzen garenean, hiruko uztarria dugu euskaldunok buruan: sagarra (*Malus × domestica*), mahatsa (*Vitis vinifera*) eta garagara (*Hordeum vulgare*). Isuri atlantikoan sagardoa eta txakolina eta mediterranean ardoak eta garagardoak egiteko gaiak sortzen ditugu. Edagaleak eta arimaren premiak berdintzeko ardoak.

Garai batean osasuna zaintzeko ere sortuko zen makina bat ardo. Ardo horiek ardo arrunten tanke bertsuan egindakoak izango ziren. Azukrea duen edozein fruitu jo, zanpatu, zukutu eta bere muztioa hartzitzen utzi. Azukrearen irakinaldi horrek alkohola sorrarazten du. Ondoren bi lan: alkoholdun edari hori fintzea eta biribiltzea. Fruitu horrek azukrearekin batera dituen lurrinak eta dastak ardoan ahal den neurrian eusteari deritzot fintzea. Azken zeregina: biribiltzea, zertutako ardoari aparteko beste dasta, lurrin edo nahi dugun ahogozagarrria erantsiko dion beste osagairen bat nahastea.

Osasuna gora behera, ahoa zuritu edo mokoa fintzen zaigunean beste ardo batzuen egarri gara. Eta litxarrerora asetzeko lanari ekiten diogu: intxusa (*Sambucus nigra*), basarana (*Prunus spinosa*), oilarana (*Prunus mahaleb*), masusta (*Rubus* sp.), maaltza (*Pyrus cordata* eta *Pyrus pyramidalis*), gurbitza



LITTLEMPRAIRIE.BLOGSPOT.COM.ES

Sagarra, mahatsa eta garagara, ardogintzaz ari garenean euskaldunok buruan dugun horuko uztarria.

(*Arbutus unedo*), gurbea otsalizarra basagurbea hostazuria eta *Sorbus jende* guztia, mizpira (*Mespilus germanica*), elorri zuriak (*Crataegus* sp.), astalarrosa (*Rosa canina*), mugurdia (*Rubus idaeus*), arakatza eta andare-mahatsak (*Ribes* sp.), aran-gurbea (*Amelanchier ovalis*) edo dena delakoa bildu eta ardo bihurtzea.

Hiruko uztarrikoenetan bezala, fintzea da fruitu horien ardoetan lanik kitzikagarriena. Ardoaren osagai garratz eta mikatz zakarrak leundu eta limurtzaile bihurtu behar dira. Limitienaren ahoko



TOM MAACK-CC BY SA



WWW.ONLINE-UTILITY.ORG

zeruko sabaiaren gogatzaila izatea helburu. Ondoren edariaren itxurari eta dastari azken ukitua eman go dion hosto, azal, espezia, ezti, bizigarri edo ezkutuko gaiarekin biribiltzea. Litxarrerorenaren lilura. ■



GOIZPER

50 urte baino gehiago merkatuko liderrak izanik, berritzaileak izateko konpromisoarekin jarraitzen dugu, zer eta gure bezeroei produktu zein zerbitzurik onena eskaintzeko.

- Ihintzagaillak: lorezaintza, nekazaritza, industria, bektor kontrola eta etxerako
- Industria sektorerako potentzia transmisiorako osagaiak

Antigua Kalea, 4 ANTZUOLA (Gipuzkoa) • Tel. 943 78 60 00 • www.goizper.com

easy MATABI

Hitz gezidunak

JATEKO BEHARRA TOKI HONETARA	ARRANTZA- RAKO TRESNA BERE GOGOZ	BELDUR BIZIA	BI MILA HIRU	OTSOAREN OIHU NAFARROA- KO HERRIA	LARRU ESKURATZE- KO MODUA	ELAIA IRAGAN ADITZAREN EKINTZA
ABIZENA MAILA BEHEKOARI DAGOKIONA		EZIN ZIMEL DAITEKEENA DEZIMETRO		BEHIA ARRESKE LITROA		
OSO, ERABAT	ABANTZU ERLJIJOARI ATXIKIA DENA				ARGI DAUKA	
		LEHERGAI- LUETATIK BABESTEKO ERAIKIN				GALIOAREN SINBOLOA JAIOTERRIA
SINDIKATU ABERTZALEA HARI					EUSKARA TITULUA LURREAN HAZIA SARTU	EZ AZIDOA EZ ALKA- LINOA EZ DENA
					TARTE, BITARTE JOAN DEN URTEA	
MENDEBAL- DEAN, ZEN IPARRETA- RRAK		IZENA NAFARROA- KO MENDIA	EGOKI IRRIKA, GOGO BIZI	IODOA AHO-GAIKO- TASUN, AHOLEGAR	NIHAUR RONA	
	KULUNKATZEN DENA MENDELE- BIOA					TONA OKA
OHOREZ KONPOSATU KIMIKOA			IZUTI 500			
					GAKO	

Kike Amonarrizen umorea

Miren eta ni

Asteburuko berri nork emango duen galdetu du irakasleak. Amaiak besoa jaso du eta irakasleak baimena eman-dakoan, arrapaladan hasi da hizketan.

— B a d a ,
larunbat goi-
zean berandu
xamar jaiki nin-



tzen ohetik eta gosalduta gero Mireni deitu nion eta gero plazan elkartu eta kalera joan ginen Miren eta ni...

Eta hori entzundakoan irakasleak:


— Ez, ez...
Miren eta biok!
— Ez, ez, zu ez! Miren eta ni!



Soluzioa

E	I	N	A	R	A	G	A	N	E	U	T	O	K	O
A	Z	S	A	K	D	E	E	A	R	I	K	I	Z	O
U	L	S	A	L										
M	E	S	I							O	N	K	I	D
I	Z	U	I							A	L	U	N	K
S	A	D	M								K	E	N	X
G	N	A	R	E	I	A	B	U	N	Z	A	N	O	X
H	B	E	N	E	T	L	P	I	R	Z	K	O	M	E

Lehen Mundu Gerrako beste Paris



CLAUDE FAIX

Ezkerrean, *The Illustrated London News* aldizkariak 1920an argitaratutako Maisons-Laffitte herriaren planoak; herriaren jatorrizko elementuak kolore ilunez daude, eta erreplikaren elementuak, zuriz. Goian, aldizkari berean argitaratutako "trenbide" faltsuaren argazkia; egitura horretan, argizatze berezien bidez, mugitzen ari ziren trenak irudikatu nahi zituzten. Eta azpian, Maisons-Laffitte 1944an; Lehen Mundu Gerran bonbardatua izan zedin prestatu zuten arren, orduan ez zuen aireko erasorik jaso. Bigarren Mundu Gerran bai, ordea.

PARIS, 1917. Lehen Mundu Gerran aireko bonbardaketek garrantzi handirik izan ez zuten arren, hiriburuko agintariak eta Frantziako armadako arduradunak kezkatuta zeuden, zeppelin alemaniarrek bi urte lehenago Londresen eragin zituzten triskantzak ikusita. Balizko erasoan aurrean nola babestu ez zekitenez, erasoak "bideratzea" erabaki zuten: Parisen erreplika bat eraikiko zuten, amu gisa, alemaniarrek hiriburu faltsua suntsi zezaten benetakoaren ordeiz.

Lehenik kokapena aukeratu zuten. Hiriburuaren iparraldean, 24 kilometrorra, Sena ibaiak Maisons-Laffitte Herrian egiten zituen bihurguneak Parisekoen antzekoak zirela ikusi zuten. Hantxe eraikiko zuten Paris faltsua.

Parisko eraikin enblematikoenak egurrez eraikiko zituzten. Baina pilotu alemaniarrek gauez engainatzeko, Argiaren Hiriaren erreplikak horixe beharko zuen, argia. Finantzaketa pribatuaren bidez, Fernand Jacopozzi elektrizitate ingeniaria kontratatu zuten. Haren zeregina fabriketako jarduna, trenen joan-etorria, eta,

finean, hiriburuko bizitza argiztapenaren bidez irudikatzea izan zen. Erreplikan egindako ahalegina eskertzeko, Pariseko udalak Eiffel dorrea argiztatzeko enkargua egin zion Jacopozziri, gerra amaitu eta gero.

1918an hasi ziren Paris berriko lanak. Egurrezko Gare du Nord geltokia altxa zuten, eta Champs Elysées-en itxura zuen eremua ere prestatu zuten. Horrez gain, Opera, Garaipen Arkua eta beste elementu ezagun batzuk eraikitze asmoa zuten, eta Saint-Denis, Aubervilliers eta beste auzune batzuk ere aurreikusten zituen proiektuak. Baina 1918ko azaroan sinatutako armistizioak proiektua bertan behera utzi zuten. Paris faltsuaren eraginkortasuna egiaztatu gabe amaitu zen gerra.

Frantziarrek ederki aurreikusi zuten hegazkinen erasoek gerora izango zuten garrantzia, baina oraindik ez zekiten radarak ezin direla giza ikusmena bezain erraz engainatu. ■



Arrastoak

Mazinger Z-k 40 urte bete ditu



MAZINGER Z manga komikiaren lehen atala 1972ko irailean argitaratu zuten Japonian, eta berehala, abenduan, izen bereko animea emititzen hasi zen Fuji telebista katea. Marrazki bizidunak Europara iristerako –TVE 1978an hasi zen ematen, eta M6 1988an– bai manga eta bai animea aspaldi bukatuta zeuden Japo-

nian, komikia 1973an eta telesaila 1974an. Indarkeria gehiegi erakusten zuelako kritikatu zuten arren –atalen bat zentsuratzeraino–, barrutik tripulatutako lehen robota aitzindari izan zen, eta belaualdi oso baten-tzat ikono bihurtu zen. Irudian, Mazinger Z eta bularretik misilak jaurtitzen zituen Afrodita A. ■

«Federalismoa autonomiaren parekoa bada, ez dut onartzen»

(Alonsotegi, 1961). Euskal Filologia ikasia. EAJko EBBko presidentea 2007tik. EAJk eta ezker abertzaleak gaur egunean ez dutela “estrategia bateratua” partekatzerik, esan digu, baita hau esan ere: “Ezker abertzaleak hartu duen ibilbidea betez gero, etorkizunean aukera hori aztertu liteke”. EAJren Eusko Jaurlaritzarako lehendakarigaia da.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

ESPAINIAKO HEZKUNTZA ministro-aren erreformak —eskolako curriculumean, berbarako— autogobernuaren eskumenak urratuko dituela aipatu diogu EAJko lehendakariyai Iñigo Urkulluri. Lehendakaria izanez gero, zer egiteko prest legokeen galdetu diogu: “Espainiako Gobernuak ez badu euskal historia aintzat hartzen Auzitegi Konstituzionalera jo ez ezik, pase forala erabiltzeko prest gaude”, adierazi digu.

Demokraziarako trantsizioa 1975-79 urteetan izan zen. Bigarren trantsizioa beharrezkoa dela esan duzu inoiz. Nola ulertu behar dugu berau?

EAJk bigarren trantsizioaren beharra dagoela dio, eta nik neuk geure trantsizioa euskal gizartean egin behar dugula esan ohi dut. Urriaren 21ean ETArrik gabeko hauteskundeak izango dira, ETAk indarkeria amaitutzat eman baitu. ETA baina, oraindik ere bizirik dago, beraz, horrek bizikidetzara iristeko trantsizioa behar du. Estatuan ere, espainiar militar batzuek adierazi dutena entzun ostean [Kataluniako Diadaren zioz], trantsizioa beharrezkoa da ejertzitoak Espainiako batasuna bermatzea nahi dutelako. Halaber, Auzitegi Nazionalaren nahiz Auzitegi Konstituzionalaren osakerak berraztertu beharko lirateke, baita Kongresuaren eta Senatuaren betebeharrak ere,



batez ere Senatuaren funtzioa egokia den edo ez ikusteko. PSOE Konstituzioa berrirakurtzeko prest dagoela dirudi, edo bere jarreraren aldaketa dagoela ematen du. 35 urte eta gero Konstituzioaren hainbat artikulua berrikusteko itxaropena zabaldu daiteke.

PSOEko idazkari nagusi Perez Rubalcabak federalismoaz hitz egin du. Sinesgarria al da?

Alderdi sozialistaren asmoetan bete-betean sinestea posible ote den? Ez dakit. Baina, tira, PSOEn batzuk gatazka politikoaz hitz egiten ari dira. Rubalcabak federalismoa zer den zehaztu beharko luke. Federalismoa, huts-hutsean, ez da ni asetzen nauen planteamendua. Katalunia, Galizia, Euskadi eta Espainiaren arteko federalismoaz ari bada, aztergai izan liteke, baina federalismoa denontzako izan den autonomiaren pareko federalismoa bada, nik ez dut ontzat jotzen.

Ibarretxek proposatu zuen Estatutu Berriak balio al du gaur egun?

Jakina. Areago, harrezkero Europako egoera orokorra eta zehatzago ekonomikoa aldatu direlako. Estatua nahi duten herri mugimenduak agertu dira Europan, edo daudeneko Estatuaren markoa berraztertu nahi dute: Eskozia, Flandes, Katalunia, gure Autonomia Erkidegoa barne. Estatutu Politiko Berriaren hainbat eduki baliagarriak dira, eta argia ikusi ez zuen Ardanza Planarenak ere bai. Honek 1998an jada, Estatu Libre Kidetua proposatu zuen, gero Ibarretxe Planak berretsitu zuena, funtsean, egungo Estatutuaren eraldatzea eskatzen duena.

EAJk proposatzen duen Estatus politiko berria hori al da?

Bai. Alegia, Ibarretxe lehendakariak aurkeztu zuen Estatutu Berria, egungo autonomiaren eraldaketa ekarri nahi zuena. Eusko Legebiltzarraren gehiengo osoz onartu zena, egungo Estatutuak berak aurreikusten duen prozedura jarraituz. Hori da gure abiapuntua. EAEtik abiatutik ere, Estatus politiko berri horrekin Nafarroako Erkidegoarekin bide egin nahi dugu, harreman instituzionalak arautuz.

Guk erabakitzeke eskubidea ordenamendu juridikoan ezarri ahal izatea planteatzen dugu, baita gauzatu ahal izatea ere. Gure asmoa Espainiako Estatura begiratu beharrean Europara begiratzea da, gure itxaropena Europa da, une honetan Europa baita eraikitzen ari den esparrua. Gure helburua, bertako ekonomiaren eta politikaren ikuspegitik, geure esparrua eraikitzeke Europaren norabidean joatea da.

“PSEk alderdien arteko transbertsalitatea iragarri zuen aurreko kanpainan, besteok nortasun ikurretan murgilduta ginela zioen. PPrekin ituna egin zuen, eta konstituzionalismoaren ikurra ezarri du”

Kataluniako ereduak balio al du Eusko Herriaren ibilbidea urratzeko?

Ez. Hasteko, aitortu behar da bien errealitateak ezberdinak direla. Hedabideek zabaltzen dituzten goiburuei oso erraz segitzen zaizkie sarritan. Gure egoerak berdinak direla esan ohi da, baina Katalunia, Quebec edo Eskoziako egoerak eta gurea ez dira berdinak. Gainera, ez dut uste euren eta gure asmoek bat egiten dutenik. Haiek goiburu bezala gauza bat erabiltzen dute, baina benetako helburua beste bat da.

Zein helburu?

Eskoziak Erresuma Batuko Estatuaren boterearen menpe jarraitu nahi duela esango nuke.

Kataluniak, berriz?

Baita ere. Izan ere, erakundearen alde, euren eraketa fisiko geografikoa guztiz ezberdina da gurearen aldean. Katalunian Estatuan dauden lau probintziek ari dira: Bartzelonaz, Tarragonaz, Lleidaz eta Gironaz. Ez dira Països Catalans deritzonak ari. Gu abertzaleok Estatuaz ari garenean ez dugu bakarrik EAEz hitz egiten, Nafarroa eta Iparraldea ere kontuan hartzen ditugu, eta hiru eremuok egoera juridiko-adminis-

tratibo ezberdinetan daudela kontziente izan behar dugu.

Kataluniako Parlament-ak kontsulta egingo duela iragarri du. Lehendakari bazina, egingo al zenuke aldarrikapen hori? Ibarretxek egin nahi izan zuen kontsultaren antzekoa egiteko?

Bai, noski. EAJk erabakitzeke eskubidea ordenamendu juridikoan sartu ahal izatea aldarrikatzen du, Konstituzioaren eraldaketaren bide, Konstituzioak berak erabakitzeke eskubidearen formula egikaritu dezan. Hori da lehen planteamendua, eta bigarrena erreferenduma egitea. Zeregin horretan indar politikoen arteko akordio irekia behar dugu ekimena Eusko Legebiltzarrera eramateko, eta hala onartuz gero galdeketa egiteko EAEko gizarteari.

Estatuak onartuko ez balu, erreferenduma izan ezean, kontsulta litzateke. Demagun gizartearen gehiengoak Estatus politiko berriaren aldeko baietza ematen duela. Zer egin orduan?

Quebecoko bidea landu nahi dugu guk, Kanadako Epaitegi Gorenak emandako ebazpenaren bidetik. Hau da, gizarte batek bere asmoa aditzera ematen badu gehiengoz, Estatuko botereek ezin diote muzin egin. Beraz, badago bide egitea, adibidez, norabide horretan, ez PSEk, baizik eta Espainiako alderdi sozialistako idazkari nagusiak Konstituzioa berrirakurtzea planteatu badu, jo dezagun bide horretatik.

Kontsulta horrek badu eperik?

EAJren Estatus politiko berria gauzatu nahia iazko urriaren 25ean adi-

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



“Ez menpeko bizikidetza, bizikidetza parekotasunean nahi dut, eta hori posible ez bada, ituna birplanteatu behar da”.

tzen ari da, eta aldi berean estatu baten tresnak nahi dituela dio. 2008ko urrian emandako hitzaldi batean, guk Euskal Estatu “gehiago” nahi dugula esan nuen, areago, konbentzitutako Autonomia Estatuaren eskutik ere Estatuaren tresnak sendotzen ditugula: EITB, Ertzaintza, Itun Ekonomikoa... Hori guztia bideratu zen trantsizio garaian, Konstituzioaren bidez, baina bidean zapuzten joan da. Beraz, nik dibortzioaz esanda modu honetan ulertu behar da: 1978an bi aldeen arteko ituna izan zen, eta itun hori batek baino ez du puskatu. Ituna izan bazen, nik ez dut apurtu nahi, itun hori EAEko gizarteak aintzat hartu zuelako. Ordea, ituna gaurko errealtatera egokitu eta areago garatu nahi dut. Horrek bizikidetza garatzea dakar, eta horretarako bien arteko ituna behar da. Eta ez menpeko bizikidetza, nik bizikidetza parekotasunean nahi dut, eta hori posible ez bada, ituna birplanteatu behar da.

tzera eman nuen: 2015erako iragarri nuen. Beraz, ez da Katalunian gertatzen ari denarengatik, ez hauteskunde garaian gaudelako.

“Independentzia bai, baina garaia ere kontuan izan behar da” esan ohi duzu.

Bai, izan ere, independentzia XIX. mendeko kontzeptua da. XIX. mendeko errealtatea eta gaurkoa guztiz ezberdinak dira. Batzuek ohetik altxatzean independentzia nahi dugula esatearekin independenteak izango garaela ematen du. Espainia independentea al da?

Euskaldunok iritsi gaitezke espainiolak bezain independenteak izatera Europaren markoan?

Guk independentzia lortuko dugu are eta menpekotasun gutxiago daukagun heinean. Gure helburu behinena ahalik eta menpekotasun gutxien izatea da. Eskumen ahalik eta gehien izatea eta Europara begiratzea, jakinda, gaur egungoa Estatuaren Europa dela. Izan ere, estatuek ez dute independentzia ekonomikorik jada, baina ahalik eta estatu sendoen izateari eusten diote. Euro-

pa eraikitzen ari den neurrian, gu independentziaz ari garenean zertaz hitz egiten dugun jakin behar dugu argi eta garbi. Azken urteotan eraiki den Europar Batasuna, Batasunetik kanpo izan ziren estatuak berera bildu direlako da. Ez dago Batasunean egon den estatu baten barruko zatiketaren ondorengo estatu kide berririk. Horregatik, EAJk galdetu du Europako Parlamentuan ea Europak onartuko lukeen barne zabaltzea —barruan gaudenon artean zatiketa izanez gero—, ea partaide izan gaitezkeen.

Erantzunik jaso al duzue?

Ez, artean, noren independentziaz ari garen argitu behar baitugu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaz ari gara? Nafarroako independentziaz edota Iparraldekoaz. Urratsez urrats egin beharreko bidea da, ondo landu eta zaindu beharrekoa.

Artean bi helburu kontrajarri aipatu izana leporatu dizute: Euskal Estatuak Europan leku izatea, eta aldi berean Espainiako Estatuarekin dibortzioa ez duzula nahi esatea.

Begira, Katalunia Estatu aldarrika-

Hori lortu daiteke Europara begira, eta aldi berean Espainiako Estatuarekin negoziatuz eta subiranotasuna partekatuz?

Bai, posible da. Hori EAEko Legebiltzarrean irudikatzen den konfederazioaren isla da. Eusko Legebiltzarrean lurralde batek ez du besteak baino ordezkaritza gehiago, sistema konfederala da, ez da federala. Hori ez dago Kataluniako Parlamentuan ez Espainiako Gorte nagusietan, gure sistema ezberdina da eta horren erdua izan daiteke.

EH Bildu indar berria da hauteskunde hauetan. “Ez gatz politikaren eremuan integratzea, erdua aldatzera baizik” esan du Laura Mintegik.

Ezker abertzaleak zerbait gaixo duela dirudi: ez du bakarrik beste guztion historia beraiekin hasten dela pentsatzen, bere historia egunero hasten dela ere pentsatzen du. Bere historia-ri uko egiten dio. Ezker abertzaleak Legebiltzarrean ordezkaritza izan du, eta legaldiko itun bat ere EAJrekin, 1998tik 2001era bitartean. Euskal

Herritarrok-ek ordezkaritzak eta ardurak izan ditu. Areago, aurrekontuen eztabaidetan parte hartu izan dute. Laura Mintegik esango du...

Berak esaten du ez duela...

...ez duela ezker abertzalea ordezkatzeko. Nor ordezkatzeko du, bada?

EH Bildurekin gobernatzeko aukerak ikusten dituzu?

Guk ez diogu atea inori itxiko. Beraz, ez ezker abertzaleari ez EH Bilduri ere. Baina, aitortu beharra dago, EH Bilduk ibilbide luzea dauka egiteko, gauza asko zalantzan ipintzen dizkigu gainontzeko. Batetik, kultura demokratikoa daukan ala ez erakutsi behar du. Ikusi besterik ez dago zer gertatzen ari den Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Batzarrak gauza bat erabakitzen du, eta Foru Aldundiko Gobernuak ez du betetzen. Bestetik ere, ekonomia alorrean, EH Bilduren hainbat planteamenduetan inposizioa ikusten dugu. Ekonomia arloan, ekimen pribatuak esparru publikoan tokirik ez izatea ezarri nahi du sozialismoaren izenean.

Inposizioak aipatu dituzu, EH Bilduk Jaurilaritza hartuz gero, bide okerra edo txarra iragartzen duzu?

Bada, bai. Ez dut uste EH Bilduk errespetua dionik aniztasunari, eta hori euskal gizartearen kontu handiz landu behar den ezaugarria da.

Hala ere, PSEk eta PPk EH Bilduren-gandik hurbilago zaudetela diote eurengandik baino.

Hori alderdi sozialistaren eta popularraren betiko leloa da. Beldurra

sarrarazi nahi dute gizartearen, egonkortasun eza bilatzen dute beti. Aldiz, PSEk legealdi honetarako alderdien arteko transbertsalitatea iragarri zuen aurreko kanpaina, besteok nortasun ikurretan murgilduta ginela zioen. Gero, PPrekin ituna egin zuen, eta ondorioz, konstituzionalismoaren ikurra ezarri du azken hiru urte luzeetan. Hauteskunde kanpaina horrelako mamuak zabaltzea beren estrategia-

“Ezker abertzaleak ez du bakarrik beste guztion historia beraiekin hasten dela pentsatzen, bere historia egunero hasten dela pentsatzen du. Bere historiari uko egiten dio”

ren barruan dago, ohiko jokoa da. Iraganeko erredua errepikatuko duzuela diote beste batzuek, alegia, PSEekin gobernu akordioa egitea.

Hasteko, EAJk alderdi sozialistarekin zubi guztiak hautsita ditu orain. Iragarpen horiek oso erraz dira demuntatzen. Alegia, Bilduk alderdi sozialistarekin itunak dauzka Gipuzkoako Batzar Nagusietan, zergen eremuan esaterako. Eta hori ez da salagarria, salagarria EAJri horrelakoak egiten dituela aurpegiatzea da. EAK ez al du akordioirik izan PSEekin? Hori ere oroitu beharko dute, ezta? EHk ez al zuen PSEekin batera bozkatu Legebiltzarrean? Ez al dira izan ezker abertzalearen eta alderdi sozialistaren arteko akordioetara iristeko denok

txalotu ditugun elkarrizketak?

Egungo Jaurilaritzaren kudeaketa ekonomikoa zalantzan jarri duzue, kaudimen eza zela-eta. Jaurilaritzara itzultzean horren beldur izango al zarete?

Beldur ez... Errealitate gordina horixe da, baina horregatik ez dugu beldurrik izan behar. Jaurilaritza honek bere agintea 642 milioi euroko zorrarekin hasi zuen, eta 2012ko bukaeran 6.000 milioiko euro zorrarekin dago, hamar aldiz biderkatu du zorra. Datuak dira, ez interpretazioak. 2011n konprometitua zeukan defizit publikoa %1,5ekoa zen, eta Espainiako Bankuak berak aitortu behar izan zuen, Jaurilaritza honek aitortu ez duena: %2,5eko defizita egin duela aurtan. Beraz, ez du hitzemandako zor publikoa beteko, gehiago izango da.

PPrekin berri, badago aukeraren bat elkar ulertzeko?

Espainiako Gorteetan PPk dauka gehiengo osoa. Ukaezina da. Noski, gobernagarritasuna PPrekin ere landu beharko dugu. Hala, ber, norekin landu beharko dugu bakegintza eta bizikidetzat? Bada, ezker abertzalearekin, baita alderdi popularrarekin ere. Eusko Legebiltzarrean elkarrekin bizitzea eta politika normaltasun osoz egitea erronka da. Beraz, denok elkar lagundu behar dugu zeregin horretan. Politika horrek aberasgarria izan behar du herriaren onerako. Horiek horrela, EAJ alderdi denei irekita dago akordioak lortzeko gobernagarritasuna bermatu aldera. ■





Eibar

Liburu azoka urriaren 11tik 21era, Unzaga plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

JAVIER LÓPEZ SÁNCHEZ

HIZKUNTZA INDIGENEN INSTITUTU NAZIONALEKO ZUZENDARIA

«Mexikok hizkuntza dibertsitatea duela onartzen hasi dira mexikarrak»

Mexikoko Hizkuntza Indigenen Institutu Nazionaleko (INALI) zuzendaria da Javier López Sánchez (Oxchujk', Chiapas, 1968). Bi urte daramatza karguan eta, duela gutxi, Euskal Herrian izan dugu, hizkuntza indigenen berri emanez. Euskarak badu beste ispilu bat non bere buruari begiratu.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Hamaika hizkuntz familia, 68 hizkuntza, 364 aldaera. Zazpiren bat milioi mexikarrek hizkuntza indigenen bat hitz egiten dute, milioi bat inguru elebakar dira hizkuntza indigenen. Beren hizkuntzan bizitzeko eskubidea dute, egiazko eskubidea da, ala paper errea?

Aldarrikapen juridikoa da, gauza guztien ginetik. Aldarrikapena 2001ean egin zen, gure konstituzioan ere jasoa dago. Herri indigenen hizkuntza eskubideen lege nagusia 2003an egin genuen. Oraintxe abiatu gara lanean.

Zein oztopo dituzue aldarrikapena gauzatzeko garaian?

Batera joan behar dute baliabideek eta gizarte kontzientziak. Kontzientzia, hala indigenena, nola indigena ez den jendearena. Izan ere, hizkuntza indigenak baliorik gabeko dialektotzat jo izan dira, eta beraz, Mexikoko gizartearen mentalitatea aldatu behar dugu, hizkuntza indigenak benetan hizkuntzatzat har ditzaten, nola ikusten duten espainola. Horretarako, kanpainak eta kanpainak egin beharra dago telebista eta gainerako hedabideetan, eta nahi-

taez, horretarako diruketa behar da. Eta ez dugu! Hala ere, ez gaude geldirik.

Nondik hasi, nola jokatu, 68 hizkuntza indigena izanik Mexikon?

Lehendakaritzarako hauteskundeak izan zirenean, esaterako, 68 haietarik zortzi baino ezin izan genituen jarri telebistan, legeak lagundurik. Hitzun kopuru handiena duten hizkuntzetarik batzuk aukeratu genituen batean baina bestean, baita hitzun kopuru txikiena dutenen batzuk ere. Oreka lortzea zen helburu.

Hezkuntzan zein hizkuntza indigena baliatzen dira?

Denak, lekuan-lekuan. Hezkuntza Elebidun Kulturartekoa du izena abiarazi dugun egitasmoak. Hez-

kuntza herri indigenetara eramateko instantzian, metodologia egoiak asmatzeko lanean ari gara, irakasleekin batera, umeek beren hizkuntza indigenan ikas dezaten, espainola bigarren hizkuntzatzat ikasiz. Horretan ari gara oraindik, hizkuntza indigenak irakasteko metodologia sortzen.

Hizkuntza indigenen idazkera normalizatzeko lanak ere zeuen gain hartu dituzue institutuan.

Hizkuntza guztiek idaztarauak izan ditzaten nahi dugu. Oraintxe, zortzi hizkuntza idazteko arauak finkatu ditugu. Herri indigenekin batera egiten dugu lan, aditu indigenak eta indigena ez direnak ondoan ditugula, baina hiztunek beraiek erabakitzen dute nola idatziko den beren hizkuntzan, adituen laguntzaz.

Hamasei hizkuntzarekin ari gara lanean oraintxe. Beste urte eta erdi beharko dugu lan hau amaitzeko. Badago zer egin, beraz. Diru-baliabide bila ari gara, ikertzaile gehiago lanean ari daitezen, lana azkartzeko asmotan, idaztarauak hizkuntza guztietan finkatzeko, gainerakoan mantso ibiliko gara-eta.

“Hauteskundeetan, Yucatango maia hizkuntza erabili zen kanpainan. Beren hizkuntza entzun zuten telebistan, eta pozik ziren. Maia ez ziren batzuek ere gozatu zuten”

Hizkuntza indigenaren gizarte prestigioaz bada zer bait.

“Hizkuntza txikiak” eta “hizkuntza handiak” bereizteko usteari kontra egin nahi diogu, finean, hizkuntza indigenak eta espainola berdin balora ditzan gizarteak. Hizkuntza indigenen erabilera bizitza publiko eta instituzionaleko arlo guztietara eraman nahi dugu, dela hedabideetan, osasun arloan, lanean, justizian, eta abar. Hasiberri gara horretan. Hauteskundeetan, esaterako, Yucatan goa hizkuntza erabili zen kanpainan, eta sinetsi gero, maiak ez ziren haserre! Beren hizkuntza entzun zuten telebistan, eta pozik ziren. Maia ez ziren batzuek ere gozatu zuten: “Yucatanera joan gabe ere, entzun dut maia hizkuntza. Bikaina!”. Prestigioa, alegia. Hizkuntza indigenak denda eta banketxeetan ere erabil daitezten da helburua, baina horretarako asko geratzen da oraindik. Internet, ziber-espazioa... Hori ere hor dago. Askok eta handi da egitekoa. Bilera ere egin dugu Google-koe-kin, bilatzailea hizkuntza indigenetan ere izan dadin. Ari gara.

Hizkuntza indigenak bizirik daude?

Denetarik dago. 364 hizkuntza aldaera direla esan dugu arestian, eta horietatik 64 desagertzeko arrisku gorrian daude, ez baitago hizkuntza horiek hitz egingo duen komunitaterik, hau da, hiztun bakan batzuk besterik ez dira geratzen, 100 hiztun baino gutxiago. Badira hizkuntza batzuk bi hiztun baino ez dituztenak, 15, 36 hiztun... Beste aldean, badira hizkuntza batzuk 1.500.000 hiztun dituztenak, naua hizkuntza, kasu; 800.000 hiztun baino gehiago ditu maia hizkuntzak; 500.000 dituzte zapoteco, misteco, maia tzeltal—nire hizkuntza— eta tzotzilek... 364 hizkuntza horiek denek ez dute berehalako batean



“Bilera egin dugu Google-koe-kin, bilatzailea hizkuntza indigenetan ere izan dadin”.

galtzeko perilik, baina gutxi-asko denak daude mehatxupean, erabileraren baldintza egokirik ez dute banketxeetan, hezkuntzan eta bestetan.

Institutuak berdin babesten ditu hizkuntza guztiak?

Ez, jakina ezetz. Hiztun kopuru txikiena dutenak, hizkuntza dokumentatzen ari gara, grabazioak egiten batik bat, hizkuntzen soinuak biltzeko. Hizkuntzaren biziberritzea

“Zera lortu dugu, hizkuntza indigena ez zuela hitz egiten esaten zuen jendeak, orain aitortzea hitz egiten dakiela”

ere oso gogoan dugu, helduek txikienei beren hizkuntzan hitz egiten erakutsi diezaieten. Bizitasun handiena duten hizkuntzen kasuan, hizkuntzaren erabilera publikoa sustatzen ari gara, eztabaidak, litera-

tura emanaldiak, material didaktikoak sortzea. Kasuaren arabera, beraz.

Zertan da hizkuntza komunitateen kontzientzia linguistikoa?

Hizkuntza zein den. Errola da Institutuarekin batera jardun dugu lanean berriki, haiek eratzen duten galde-egian kolaboratzeko. Besteak beste, hizkuntzaren gainean galdetu diogu jendeari. Bada, 2005eko errol- dan, hamar, hamabi milioi ziren indigenak, edo bere burua indigenatzat jotzen zutenak, bederen. Gaur egun, errola ezarriak ditugun galderen ondorioz, hamasei milioi dira egoera horretan. Kontzientzia linguistikoaren lehen maila bat duzu. Besterik da hizkuntza hitz egitea... Gainera, zera lortu dugu, hizkuntza indigena ez zuela hitz egiten esaten zuen jendeak, orain aitortzea hitz egiten dakiela. Horixe gertatu zaigu Tabasco estatuan, hegoal-

dean, non azkeneko errola baino lehen bi hiztun besterik ez zituen ayapanecoak, eta orain aldiz, hogeita bat lagunek jotzen duten bere burua ayapanecotzat, nahiz eta hizkuntza ez hitz egin.

Mexikoko populazio ez-indigenak nola hartzen ditu hizkuntza indigenak?

Diskriminazioaren Kontrako Kontseilu Nazionalak azterketa egin du mexikarren artean, herri indigenei buruz zer nolako pertzepzioa duten jakite aldera, eta dioenez, jendeak bestelako sentiberatasuna du gaur egun, lehen ez zuena. Hasteko, Mexikok hizkuntza dibertsitatea duela onartzen hasi dira. 2001ean, Mexikok bere burua

herrialde kulturantzun eta eleaniztuntzat jo zuen legez, konstituzioan. Horrek ekarri du mexikarrak ere aniztasun horretaz jabetzea eta, batzuetan, baita dibertsitatea onartzea ere.



Diskriminazioaren kontrako batzordea baldin bada, diskriminaziorik badela esan nahi du.

Ez da gauza orokorra, oraindik bada diskriminaziorik, bai, indigena direnen kontra, hizkuntza indigenen bat hitz egiten dutenen aitzi, baina zer edo zer aldatzen ari da, bai indigenetan, bai gizartean oro har. Kontzientzia areagotu beharra dago, hala ere.

Maia tzeltal da zure hizkuntza.

800.000 hiltun ziren lehen, Chiapasen. Orain, 1.200.000 gara. Gaur egun, gazte askok hizkuntza indigenan osatzen dituzte musika taldeak, eta pop, rock, reggae edo mariachi kantatu. Kontzientzia adibide dira, bere burua era jakin batera ezagutzeko modua. Joan deneko lehendakari-tzarako hauteskundeetan, 132 izeneko mugimenduaren baitan, gazteek sare sozialak erabiltzera jo zuten, hizkuntza indigenak baliatuz. Kontzientzia erretze bat gertatzen ari da, nola pertsona larrietan, hala gazteetan. INALI gazte indigenen biltzar nazionalak antolatzen ere ari da, beraiek eztabaida dezaten hizkuntzak hezkuntzan, justizian, lanean, genero berdintasunean, sare sozialetan, Interneten... duen garrantziaren inguruan. Gazte biltzar horiek antolatzen ditugu, gazteek beren hizkuntzaren erabileraz zer dioten jakin nahi dugulako, horren arabera erabakiak hartzeko. Gazteak oso inportante dira, bisa-

gra-lana egiten dutelako haur txiki-
kien eta gurasoen artean. Guraso
askok uko egin diote hizkuntza
indigenari, “ez du balio erabiltze-
rik”, eta aldiz, gazteak bestela ari
dira. “Gure hizkuntza inportantea
da!”, diote.

“Gazte askok maia tzeltal hizkuntza indigenan osatzen dituzte musika taldeak, eta pop, rock, reggae edo mariachi kantatu. Kontzientzia adibide dira”

Zu zeu Oxchujk herrikoa zara. Zertan da egoera han?

Utzidazu esaten Oxchujk gure herriaren izena dela, baina espainol-
dua. Hitz horrek, horrela esanik, ez
du esanahirik, baina tzeltal hizkun-
tzan esaten badizut, Oxchujk’ (‘ glo-
tal hori eta guzti), “hiru korapiloren
herria” esan nahi du. Hor bada his-
toria, jakina, nola heldu ziren inba-
sore haiek, bertakoak aurkitu zituz-
tela, arbolari lotu zituztela, hiru
korapilo eginez...

Gaztelaniaz ondo ez egiteagatik eskolan zigortzen zintuzten.

Sei-zazpi urte nituela hasi nintzen
espainola ikasten. Gure komunita-
tean tzeltal hitz egiten genuen,
baina eskolan espainolez behar
zenuen. Zigorak kastillanotu gin-
tuen. Gogoan dut zigor bat, neure

azalean bizi nuena. Maisua bera
tzeltal hitzuna genuen, geure talde
etniko berekoa, baina guk espaino-
lez ondo hitz egin behar genuela
esaten zigun. Hitzak errepikarazten
zizkigun eta, behin, ‘r’-a esaten
ausartu nintzen. Bada, *carro* [gurdia]
ordez, *caro* [garesti] esan nuen.
Zigortu egin ninduen: erratza
eskuan hartu, patiora irtenarazi nin-
duen, eskua gora erratza jasoarazi,
eta eguzki galgatan, ehun aldiz *carro*
errepikarazi zidan, ikas nezan. Nik
ezin, ordea, ‘r’-a ez zelako nire hiz-
kuntzaren alfabetoan ageri. Nire
ahots-aparatuak ez zuen hura eza-
gutzen.

Zeuen hizkuntza bizirik zenuten, beraz, tzeltala.

Umetan, familian, komunitatean,
elkarbizitzan, ibaian, soroan... hiz-
kuntza indigena, tzeltala. Eskolan,
espainola. Lehen Hezkuntzan tzel-
tala erabiltzen uzten ziguten, hein
batean, baina Bigarren Hezkuntza
orduko baztertu egin behar
genuen, ondoko mailetara tzeltala

hitz egin gabe heltzeko. Uni-
bertsitatean, hizkuntza indi-
gena guztiz bazterturik
genuela heldu ginen. San
Cristobal de las Casaseko
gizartea oso diskriminatzaile
da, arrazista, eta larritik
frogatu nuen. Eskolan, eta
eskolatik kanpora. Indigenek
eta ez indigenek, mestizoek
ere bai tartean, iseka eta burla egi-
ten ziguten, espainolez ondo ez
ahoskatzeagatik, edo tzeltal sinta-
xia erabiltzeagatik hizketan ari nin-
tzela. Uste dut berdin gertatu zela
Euskal Herrian...

Bada liburu bat, Koldo Izagirrek orain bi urte egina, *Autopsiarako frogak*. Gaztelaniaz, edo tzeltalez!, balego, jakingo zenuke... Tzeltala bizirik dago Oxchujk’-en gaur egun?

Bizi-bizirik, baina egia da, era
berean, haur askok, gazte askok, ez
dutela tzeltal hitz egiten. Beste
askok bai. Irakasle asko dira, ordea,
hizkuntza berreskuratzeko lanean,
eta udan bertan, esate-
rako, tzeltal ikastaroak
antolatu zituzten. Hori
Oxchujk’-en, nire jaio-
terrian. ■





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Dosi txikitan pozoitzen ari da Hego Euskal Herria

Tamaina txikiko partikulen urteko balioak Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatutako mailen gainetik daude ia Hego Euskal Herri osoan. Biztanle gehienek aire kutsatua arnasten dute, Ekologistak Martxan taldeak airearen kalitateari buruz argitaratu duen 2011ko txostena irakurrita ondoriozta daitekeenez.

| GORKA BEREZIARTUA |

NORBAIT POZOITUTA hiltzen saiatu denak badaki biktinari dosi txiki konstanteak ematea dela krimen perfektua egiteko metodorik egokiena. Erailketa faszikuluka gauzatzeari nekagarriagoa gerta daitekeen arren, frogak ezkutatzeko orduan abantailak handiak dira. Antzeko zerbait gertatzen da airearen kutsadurarekin ere: gai toxikoen emisio masiboren bat gertatuz gero albiste bihurtuko da; pozoia pixkanaka emitituz berriz, hiltzaileek isil eta pozik egin dezakete lan gure airean.

Ekologistak Martxan taldeak Espainiako Estatuko airearen kalitateari buruzko 2011ko txostena argitaratu zuen joan den astean eta Hego Euskal Herriari buruz eskaintzen dituen datuei erreparatuta ondoriozta daiteke, biztanle gehienek arnasten dituztela gai kutsagarriak Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) gomendatutako mailen gainetik.

Partikula toxikoen tankerari erreparatuz gero, PM_{10} eta $PM_{2,5}$ motakoen maila altuak neurtu dira Hego Euskal Herriko gunek askotan. Tamainaren arabera egindako sailkapena da: PM_{10} partikulak 10 mikrometro baino txikiagoak dira eta arnas aparatuko hodi meheenetaraino irits daitezke. $PM_{2,5}$ motakoak berriz, 2,5 mikrometro baino txikiagoak dira eta arnas aparatutik odolera hel daitezke daukaten tamaina txikiagatik.

Nola eragiten dion osasunari partikula horiek arnasteak? Agurtu ditzagun heriotzaren hiru zaldunak:



Muskizek sufre dioxido maila altuak ditu airean, Petronorrek herrian daukan plantaren eraginez.

biriketako minbizia, gaixotasun kardiobaskularrak eta arnas-eritasunak. Zenbat eta txikiago, orduan eta kaltegarriago, $PM_{2,5}$ partikulen biktima gogokoenak haurrak, adinekoak eta biriketako arazoak dituzten pertsonak dira.

EAEko ia eskualde guztietan daude PM_{10} eta $PM_{2,5}$ motako partikulak OMEk gomendatutako mailen gainetik, Arabako lautadan, Enkarterrietan eta Nerbioi Ibarrean salbu. Bilbo da punturik beltzena, jarduera industrialak eta trafikoa handiak eraginda. Nafarroako Foru Erkidegoari dagokionez, Iruñerria eta Tuteran agertzen dira aire kutsatuen duten gunek gisa.

Mikropartikulek gain, sufre dioxidoa eta ozono troposferikoa ere arnasten ditugu azpimarratzeko moduko mailetan. Sufre dioxidoak

Arrasate eta inguruko herriak, Muskiz, Santurtzi eta Abanto kutsatzen ditu batez ere, baita Iruñea ere, Landabengo industriguneko emisioen ondorioz. Ozono troposferikoa kostaldean, Goierrin, Deba garaian, Ibaizabalen, Zangotzan, Tuteran eta Arabako Erriberan agertzen da nabarmen.

Ekologistak Martxan txostenak argia ikusi eta biharamunean, Federico Ramos Espainiako Ingurumeneko Estatu Idazkariak adierazi du ez dela “alarmista” izan behar airearen kalitateari buruz hitz egitean. Hilketa guztietan agertu behar du polizia agente batek, gorpuzaren klarionezko marrazkiari begira ari den jendea “hemen ez da deus gertatzen” esateko. ■



TALAIAN

Pentsioak, bankuak eta gastu militarrek

ESPAINIAKO GOBERNUAK pentsioak balioz handituko ote dituen ez esateko estrategiak, eztabaida publikoa sortu du. Balioz handituko balu –KPIaren %1etik %3,5era dagoen diferentzia onartuz– 5.000 milioi euro gehiago ordaindu beharko lituzke. *El País* egunkaria balioa handitzearen kontra azaldu zen “Pentsio politikoak” izenburuko editorialean. Pentsioak KPIaren arabera balioz handitzea “hutsegitea litzateke” egunkariaren arabera: “Kostu hori –5.000 milioi euro– ezin delako onartu (...), egungo aurrekontu-egoeran kaltegarria litzateke hori aplikatzea”.

Ez gaude ados errotatiba madrildarrarekin. Milaka milioi euro injeztatzen dizkiete bankuei; eta beste aurrekontu-sail batzuei, nahi-taezkoak ez diren arren –gastu militarrena esaterako–, murrizketarik apenas egin dieten. Indar armatuen kopurua murriztea (130.000), Armagintza Programa Berezietako kontratu handiak ezeztatzea, I+G militarra ezabatzea eta Espainiako indar armatuek kanpoan duten presentzia gutxiagotzea. Horra neurri batzuk, 7.000 eta 8.000 milioi euro arte aurreztu eta pentsioen ordainketa bide onean jarriko luketenak, bai eta zorpetzetik eta defizit publikotik ateratzen lagunduko liguketenak ere. Onargariak al dira bankuei egindako diru-injekzioa eta gastu militar horiek?

Egoera berezian bageunde, bankuek eta militarrek eragiten dituzten gastuak murriztuz gero, seguru pentsiodunak prest leudekeela sakrifikatzeko. Baina hori egiten ez den bitartean, bidezkoa da pentsiodunek euren dena aldarrikatzea: pentsioak balioz handitzea aurreikusitako %3,5ean. ■

Juan Mari Arregi



BERO-BEROAN • TERMOMETROA

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Diputazioaren hizkuntza politika eta harrotutako hautsak

ARGIaren aurreko zenbakian, 2339.enean, Markel Olano Gipuzkoako batzar-kide eta ahaldu nagusi ohiak hautsak harrotzeaz hitz egin zigun: “Euskaldun garenok egiten dugun irakurketa da komunikazioa euskara hutsean egiten duzunean hautsak harrotzen direla. Adibidez, prentsaurrekoan komunikazio alorreko profesionalari euskara hutsean egiten badiozu, harentzat eraso da, konturatzan da profesionalki zer-bait falta zaiola”.

Bada, Gipuzkoako Foru Aldundiak hizkuntza politikari dagokionez ezagutarazi dituen neurriek beste hainbeste eragin dute. Emandako pausoen zerrenda eta nolakotasuna luzea da –besteak beste, 49.234 gipuzkoarrak eta 643 enpresek Ogasunarekin euskara hutsean aritzeko eskaria egin dute–. Alabaina, beste behin bazterrak nahastu dira prentsaurrekoetan hizkuntzak nola landuko dituzten adierazi dutenean.

Aditu taldeak osatzen ez badu ere ETB2ko *Ni más ni menos* telebista saioko solasaldia, tertulian agerian gertatu zen euskararen normali-


zazioa bakoitzak nahi duen bezala ulertzen duela. Has-teko, Klaudio Landa aurkez-leak ez zuen gaia ondo azaldu: ez da gauza bera esatea Diputazioak hemendik aurrera prentsaurrekoak euskara hutsean egingo dituela erabaki duela, edo esatea prentsaurrekoetan euskarak izango duela lehen-tasuna eta euskara ulertzen ez duten kazetariak aldibereko itzulpen zerbitzua izango dutela. Lerdokeria ugari entzun genuen solaskide batzuen ahotik –prentsaurrekoetarako neurria *aldeana-datzat* jo zuen batek– eta beste batzuek ahal zutena egin zuten Diputazioaren erabakia babesteko. Gehien gustatu zitzaidana Muxikako Arkaitz izan zen, telefonoz bestaldetik, platoko tertuliakideek ez bezala, patxada galdu gabe eta errespetuz azalpen ederrak eman baitzituen. Sarri asko buru-bihotzetan daukaguna hitzez ezinik ibiltzen gara, nahiz eta justizia eske gabiltzala jakitun izan, eta nahiz eta jakin eraso gupidagabea eta zentzugabea izango dela.

Soziolinguistika ikastaro-en beharrean gaude.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Inkestak, aliantzak, egia bat eta gezur bat

IÑIGO URKULLUK badu Eusko Jaurlaritzako lehendakari izateko aukera asko, inkestek diotenez EAJk irabaziko baititu hauteskundeak eta, beraz, bakarka, EH Bildurekin edo PSE-EErekin gobernua osatzeko aukera asko du. Ez da ahaztu behar, alabaina, garai aldakorak bizi ditugula maila guztietan, gogorrak herritarrentzat eta aldaketa eskaera handia dela politika munduarekiko. Hortik etor dakieke ezustekoa jeltzaleei. Kontrajarria dirudi herritarrek aldaketa nahi izatea eta gero EAJ hautatzea, euskal instituzioetan betikoa den alderdia, baina jeltzaleek ondo lortzen dute hautesleei segurtasunaren irudia igortzea. Hori Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderen hauteskunde ematen den fenomeno da, baina oraingoan gainera, hersturak Patxi Lopez higatu du eta ez Urkullu.

Laura Mintegik ez ei ditu hauteskundeak irabaziko, inkesta batek ere ez dio halako aukerarik ematen, eta gainera, EH Bilduk eserleku gehiago lortuta ere, gaitza litzateke berak lehendakaritza eskuratzea, batez ere besteek utziko ez lioketelako. Ez dirudi EAJk berriz Gipuzkoako Diputazioko egoera errepikatuko lukeenik, areago Eusko Jaurlaritzarekin. Edozein modutan, ETArek ondorengo euskal politika ezustekoen kutxa ere bada: norbaitek gogoratzen al du zein inkestetan iragartzen zen Juan Carlos Izagirre eta Martin Garitano izango zirela Donostiako alkate eta Foru Aldundiko ahalzun nagusi?

Hala ere, badirudi Mintegirentzat emaitza ona litzatekeela Urkullurengandik ahalik eta gertuen izatea. Eta inkesta batzuen arabera, hori posible da: *Naiz* eta *Gara*-ren-

tzat Aztikerrek argitaratzen duen azterketan EH Bildu EAJrantz urreratzen arituko litzateke. Eta posible da, bai. Bi klabe garrantzitsu egon daitezke horretarako.

Bata da, orain arte Bildu edo Amaiurrera hurbildu ez den ezkerreko herritar multzo batek pentsatzea EH Bilduk bestelako politikak egin ditzakeela. Beste klabea Kataluniako independentzia bafadatan da, eta hauek hainbat herritar sobranismoaren aldeko hautu argira eramatea, eta hori EH Bildu da. Jeltzaleen duda-muden aldean, independentzia aldarrikapena argia da

Izan gobernutik, izan Legebiltzarretik, agertuko den nagusitasun abertzalea herri honen izaeran giltzarri diren eremuak ondo finkatzeko baliatu beharko litzateke legealdia

EH Bildun, naiz eta gero ez den sakontzen zeren independentziaz ari diren, hori gai sakon eta korapilatsuagoa delako. Azkenik, eta faktore hau inkestetan agertzen ez bada ere, ez da baztertu behar hiru hautagaietatik emakume bakarra izateak emakumezko askoren aurrean izan dezakeen tiradizoa.

IRABAZLEARENA baino kitzikagarriagoak izan litezke aliantzen kontuak, ezinbestekoak izango baitira: zein makulurekin gobernatuko du irabazleak? EAJ bada, PSE-EE edo EH Bildurekin? Edo, zenbakiek ematen badute, PPrekin? Dena da gaitza. Krisiari begira, Bildurekin baino popular eta sozialistekin jardutea logikoagoa litzateke, bien erreformak sostengatu izan baititu EAJk; eta, azken

finean, beste biak bezala, eroso dagoelako egungo sistema ekonomiko honetan. Baina eragozpenak ere badira: nola lotu euskal lurretan behintzat kiratsa darion PPrekin? Nola zubi guztiak apurtuta ei dituen PSErekin?

EAJ-EH Bildu gobernua izango da aukerarik gaitzena. Hainbat proiektu handitan eta eredu sozialetan dauden desberdintasun handiek biziki zailtzen dute elkarrekin aritzea. Edonola, izan Gobernutik, izan Legebiltzarretik, agertuko den nagusitasun abertzalea herri honen izaeran giltzarri diren eremuak


ondo finkatzeko baliatu beharko litzateke legealdia. Ez egitea barkaezina litzateke. Krisiaren aurkako borroka lehenetsi beharko da, bai, baina abagune berezi hau profintatu behar da baita ere bake prozesuan sakondu eta gatazkaren kapitulu latzenak behinbetiko ixteko, batez ere biktimak eta presoei dagozkienak.

Azkenik, urriaren 21ak egia bat eta gezur bat oso agerian utziko ditu. Egia honakoa: hainbat arrazoiengatik estalita egon den EAEko herritarren izaera abertzalea argi azaleratzen dela aspaldikoz. Madrilek ere badaki hori, eta horra hurrengorako iragarri duen hauteskunde erreforma kolonialista. Eta hau gezurra: Patxi Lopezek Gobernuak amaitu duela ETArekin. Ez da zalantzarik Espainiako Gobernuaren errepresioak izan duela eraginik ETArek erabakian, baina Bilduk, Amaiurrek eta orain EH Bilduk gero eta ageriago uzten duten moduan, ezker abertzalearen aldaketa izan da giltzarri ETArek erabaki horretan. Bakoitzari berea. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Gametxo hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Gametxo auzoa
Ibarrangelu **BIZKAIA**

www.hotelgametxo.com

1



EUREKA! zientzia museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia **GIPUZKOA**

www.eurekamuseoa.es

2



Jorge Oteiza Fundazio Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

De la Cuesta, 7
Alzuza **NAFARROA**

www.museooteiza.org

3



Kolonbian bahituta

74 egun ELNren esku

Asier Huegun • Gari Udabe

5 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea
Tafalla **NAFARROA**

www.txalaparta.com

4



Okatxu

2 komiki opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2338. Argia)

IBERNALO LANDETXXEA

• Jon Mikel Barandiaran Arratibel (Errenteria)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

• Maria Asun Azpiazu Ansoregi (Mutriku)
• Maddalen San Miguel Otegi (Zaldibia)
• Karmen Alvarez Yagüe (Donostia)
• Getxoko Euskara Zerbitzua (Getxo)

KIROLAZ BADAKIT

• Oskar Angulo Saralegi (Usurbil)
• Eneko Mairoz Ganboa (Orexa)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

• Iñaki Korta Larrañaga (Eibar)
• Aitor Duñabeitia Martin (Durango)
• Idoia Jauregi-araburu Abasolo (Arrasate)
• Aritz Jauregi Lejona (Legutio)

TXALAPARTA Made in Galiza liburu

• Amaia Alvarez Uribe (Gasteiz)
• Juanjo Barandiaran Arratibel (Donostia)
• Aitor Sangroniz Akarregi (Santurtzi)
• Karlos Zarraga Ellakuria (Zaratamo)
• Iñaki Mundiñano Larraza (Etxarri-Aranatz)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





euskarabildua

AUKERA BERRIAK SAREAN

noiz

urriak 19 ostirala

non

Koldo Mitxelena
(Donostia)

ordua

09:00-14:00

*Oharra:

Plaza kopurua kontrolatu ahal
izateko, gomendagarria da
izena ematea

EGITARAUA

09:00 Aurkezpena

09:15 Bideo laburra
Esperientzia arrakastatsuak euskaraz: Tropela

09:30 Ponentzia. **Davyth Hicks**
Teknologia berriak eta hizkuntza gutxituak: erabilera eta ikusgarritasuna
handitzen. Etorkizuna eta garapena European.
*Itzulpen automatikoko zerbitzua egongo da

10:15 Bideo laburra
Esperientzia arrakastatsuak euskaraz: Osasunlingua

10:30 Ponentzia. **Albert Cuesta**
Sare sozial globalak: itzulpenaz harago

11:15 Atsedenaldia

11:45 Ponentzia. **Egoitz Goikoetxea**
SEOaren garrantzia irakurle eta erosle euskaldunen nahiak
internet bidez asetzeko

12:30 Bideo laburra
Esperientzia arrakastatsuak euskaraz: Arbel digitala

12:45 Ponentzia. **Lander Arbelaiz** (ARGIA)

Euskara eta
teknologia berri
buruzko jardunaldia

Antolatzaileak

ametzagaña
OO taldea

argia

iametza
interaktiboa

info+:

www.euskarabildua.com

Babesleak



Gipuzkoa
BERRIA

kutxa gizarte ekintza

Laguntzaileak

aniza
komunikazio grafikoa

Deusto
Realidad de Ciencias Sociales y Humanas
Gobierno de Gipuzkoa

